

...eta!
Kitto!

2019-11-1

1086 zkia.

42. Antzerki Jardunaldiak

bete-bete gozatzeko



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com

Eibarko La Salle



Nahi al duzu?

Matrikula zabalik: Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra
www.lasalleebar.com 2 urtetik 16 urtera
943 20 21 33 / 943 12 16 98



Informaticando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA. EIBAR ETA ELGOIBARREN.

TABERNETAN



ZINEMETAN



30
PANTAILA



HARTEGIETAN

OKINDEGIETAN



HARREMANETAN JARTZEKO

WWW.INFORMATICANDO.EUS

943 15 06 22



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarteak.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabiak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarta@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Lurrak Antzerkia

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta inntzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eskutitzak

– Egogaineko erizainen egoera salatuz –

Legealdi honetako politikoengandik jasotako erabateko mespretxua salatu nahi dugu Erizaintza sailetik. Hamaika txosten xehe aurkeztu eta hainbat aldiz eskatu ondoren, aurreko legealdian erizain postu bat gehiago (EDU) sor zedin lortu genuen. Horretarako, gure arduradunen babes osoa izan genuen eta, orotara, bost erizaineko lantaldea osatu genuen.

2017ko abenduan egoitzako zuzendariak ohartarazpen hau iritsi zitzaioela esan zigun: aurreko irailean amortizatutako jo zela EDU lanpostuetako bat eta %20 txikituko zela azpikontrataturiko enpresaren EDU kopurua. Ez ziguten neurria komitearen bidez jakinarazi eta ez zen inolako barne-buletinetan argitaratu. Ondorioz, ezin izan genuen erabakia egikaritu aurretik negoziatu ere egin.

Maite Peña diputatu andreari eta Imanol Lasa diputatu jaunari gutuna idatzi genien, hainbat senitartekok sinatua. Hartutako neurria birpentsatu zezatela eskatzen genien: aipaturiko lanpostua ez amortizatzeke eskatzen genien eta gaueko txandarako beste lanpostu bat sortzeko ere bai.

Elena Basagoitiaren azken ezarpena zera izan da: arratsaldeko errefortzua kentzea eta gaueko txandara pasatzea. Ondorioz, arratsaldetan erizain bakarra gelditu da egoitzako erabiltzaile guztien beharrei erantzuteko. Kontuan hartu behar da erabiltzaileok hainbat modulutan sakabanatuta daudela, 10.900m² inguruko bederatzitako solairutan.

Arreta-moduluotan menpekotasun-maila handiko

pertsonak daude, laguntza handia eta etengabeko erizaintza-arreta behar dutenak: konstanteen kontrola, lainoztapena, garbiketa enemak, serum aldaketa, zainketa paliatiboak... egiteko; injekzioak, insulina etab. jartzeko... Horretaz gain, senitartekoei eta gainerako lankideei arreta egokia ematea eta edozein unetan edozein eratako larrialdiei erantzun beharra ere (baita aldi berean bati baino gehiagori ere) badagokie. Horri gehitu halako erakin bertikalean mugitu behar izatearen estresaren gainean xurgagailuak, jostura-materiala, larrialdi-ekipoa etab. daramatzatela.

Erizaintza kontrola 5. pisuan dago eta handik mugitu behar izaten dute erizainek erakin osoan barrena. 1. pisuan eguneko zentroa dago, eta 30 erabiltzaile ditu; 3. pisuan unitate psikogeriatricoa, 13 erabiltzaileekin; 5. pisuan menpekotasun handikoak daude, 22 lagun; 6. pisuan menpekotasun handiko gaixo psiko-fisikoak, beste 22; 7. pisuan menpekotasun fisiko handikoak, beste 22; 8. pisuan (laster zabalduko dute) 17 lagunentzako lekua egongo da; 9. pisuan hainbat patologiadun 22 gaixo daude; pertsona autonomoen moduluan 40 lagunentzako lekua dago, 5 solairutan sakabanatuta; eta buruko gaitz larrien unitatean beste 13 lagunentzako lekua dago.

Erizainei dagokie egoitzako langile guztiak artatzea ere, edozein larrialdiren kasuan. Nolatan esan dezakete langile-murritzeta egoitza-zerbitzuetako katalogoko ratioetan oinarritutako neurria dela?

Egogain Gerontologikoko Erizaintza zerbitzua

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAUSTA-MAUSTA (JAN). - Gogoz jan, jan eta jan jardun. "Oilaskua daguanian mausta-mausta jaten dau, baiña berduria edo arraiña bada, orduan kontuak".

Jatekoa ahoan bueltaka irentsi ezinik erabiltzea ere esan nahi du. "Emoixozu ura edo zeozer umiari, ordu-erdixan mausta-mausta dabil okelia amaittu ezinik"

astean esanak

"Arrantzatzen dugun angulak zenbatu eta Eusko Jaurlaritzari eta Aztiri pasatzen diogu informazioa. Baina ez dakigu Bruselara zer bidaltzen ari diren ere eta beste interes batzuk dauden susmoa piztu digu horrek. Neurriak zona guztietan hartu behar direla diote, eta Frantzia bost hilabetez tonak eta tonak harrapatzen ari dira. Eta guk, astebete bakarrik? Esplikazio bakarra dago: Azti dela Europako Batasunean angula leheneratzeko proiektuaren ardura duen erakundea, sekulako dirulaguntza jasoz, eta ez zaiola komeni hori galtzea"

(UNAI EIZAGIRRE, ANGULARIA)

"Pertsona batek izan dezakeen gaixotasunaren inguruan ezer jakin nahi ez izatera bultzatu diezaiokeen arrazoietakoa bat ingurunearen erreakzioari dion beldurra izan daiteke. Familiakoak gaixoarekiko harremana aldatzen dute: gehiegi babestera jo eta sendagai bat aurkituko dutela esaten diote, hori gezurra dela jakin arren. Guztien artean bizitza zailtzen hasten dira eta ez diote gauza batzuk egiten lagatzen, 'badaezpada'. 'Ze aurpegi ona duzun' esango diote, jakinda -gaixoak berak dakien moduan-hori ez dela horrela. Elefantea logelan dago, guztiek ikusten dute eta ez balego moduan jokatu"

(MABEL MARIJUAN, BIOETIKA IRAKASLEA)

"Pentsio-defizitarekin amaitzeko, zergadun guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) %23 igo beharko litzateke, edo soldatak %17,1 -kotizatzeke oinarria igota-, edo, azkenik, enpresek eta langileek ordaintzen duten batzabesteko kotizazioa %4,8 goratuta. Beste aukera bat da 3,6 milioi lanpostu berri sortzea estatuan, epe motzean ezinezkoa ia. Gaur egun kobratzen den lehenengo pentsioa, batzabeste, azken soldataren %78,7ra heltzen da, eskuzabalenetakoa European. Jubilatutako kotizatutakoak 16 urte ordaintzeko ematen du; bizi-itxaropena 21 urtetan dagoenez, bost urte Estatuaren kontu"

(FEDEA, EKONOMIA FUNDAZIOA)

Hillebetez egongo da itxitta Errekatxu eta Arane bittarteko errepidia

Azken egunetako eurixak eraginda, astelehen goizaldian (04:45 aldera) luperixia gertatu zan Aranen. Lurra ez eze, harri mordua erori ziran errepide gaiñera eta harrezkero moztuta dago Errekatxu eta Urtzaille kaliak alkartzen dittuan bidia. Udaltzaingotik aurreratu dabenez, hillebete inguru biharko da arazua konpontzeko. Mendihegal horretan aurretik be gertatu dira luperixak. 2018ko apirillian holakuak saihesteko sare bat jarri bihar izan eban enpresa espezializatu batek. Astelehenian gertatukua ikusitta, baiña, atzera be neurrixak hartu biharko dira leku horretan lurjausiak ekiditzeko.



Erretziari lagatzeko taldia osatuko dabe Eibarren

Gipuzkoako AECC Minbiziaren Aurkako Elkartearen Debabarreneko Batzordiak erretziari lagatzeko laguntza-terapiarako taldea antolatu dau Eibarren eta tabakismuan aditua dan psikolo-

go batek zuzenduko dau. Saiuak doakuak izango dira eta parte hartzeko ez da biharrezkoa izango erakundeko bazkide izatia. Ordugegixak taldekidien arabera ziheztuko dira. Taldian parte hartzeko interesa dakenak informaziño gehixago eskatu leikie 943 20 24 94 telefono zenbakira deittuta edo, bestela, zuzenian Arantzale kaleko 11. zenbakixan dagan alkartiaren lokalera juateko aukeria be badake.



Minbizixaren kontrako alkartiaren arabera, 2018xan Gipuzkoako 91 lagunek erabili eben zerbitzua eta hamarretik seik arrakastarekin amaittu eben prozesua. Hau da, pazientien % 62k lortu eben erretziari lagatzia terapia honen laguntasunarekin. Mainer Sierra AECC Gipuzkoako psikologo eta prebenziño arloko arduradunaren berbetan, "arrakasta, azken batian, pertsona baxotxaren arabera dan arren, frogatuta dago kanpoko laguntza profesionala jasotziak asko haunditzen dittuala erretziari lagatzeko orduan arrakasta izateko aukerak". Mugikorretarako aplikaziño bat be badago eskuragarri: 'RespirApp' izena dauka eta erretzen dabeneztako tabakua lagatzeko baliagarrixa da.

"Txopitea eta Pakea" aitormena jaso dau Eibarko Ospitalearen aldeko plataformiak

Herriko 21 kolektibok osatutako Eibarko Ospitalearen aldeko plataformiak "Txopitea eta Pakea" aitormena jaso eban eguazten goizian Miguel de los Toyos alkatiaren eskutik, "herrixan osasun-azpiegitura hori eraikitzeko izandako konpromisua" eskertzeko. Ekitaldixan gogora ekarri ebenez, Eibarren Ospitalea eraikitzeko proiektua arriskuan eguala ikusterakuan, 2013an

plataformia eratu eben herriko 21 kolektibok eta Eibarko Ospitalearen aldeko manifestua idatzi eben. Urte horretako martxotik apirillera bittartian 11.141 siñadura biltzia lortu eben eta, siñadura horren babesarekin, Ospitalea eraikitzeko euren eskaeria Eusko Jaurilaritzaraiño eruan eben. Aitormentarekin plataformiak egindako ahalegin eta biharra eskertu nahi izan detse.



Felix Elkoroiribek jaso zeban aitormena alkatiaren eskutik.





Bigarren urtez jarraixan Gasteizen bizi diran eibartarrak sanblasak egin dittue.

San Blas opillak Gasteizen be

Gasteizen bizi diran eibartarrak iaz haittako bidia jarraitu detse aurten be eta, Mami okindegi-eskolarekin alkarlanian, San Blas opillak egiten jardun dabe. Esan deskuenez, "lehen saiakeria iazkoa izan zan eta, Pili Izaga eta Alberto Gomezen laguntasunarekin eta Artepneko Txema Pascualek eta Antxeta Knörr Rekondok erakutsitako goguerekin, arrakasta ziurtatuta dago. Eta, jakina, Eibar Gasteiz Elkarteak bere bedeinkapena emoteko aukerarik ez eban galdu nahi izan".

Sanblasak bedeinkatzeko mezak

San Blas opillak bedeinkatzeko ohitura be ondo errotuta dago geurian eta,

horregaittik, Eibarko eliza guztietan sanblasak bedeinkatzeko mezak ospatuko dittue aurten be. Zapatuan, San Blas egunaren bezperan, Urkiko San Jose Obrero elizan (18:00etan) eta Ipuruako San Pio X.a elizan (19:00etan) izango dira mezak. Eta domekan, San Blas egunian, Karmengo Amaren elizan 09:00etan, 10:00etan, 12:00xetan eta 19:00etan izango dira bedeinkapenak; Azittaingo eta Amañako elizetan, barriz, 11:00etan; San Andres parroixan 11:45tan bedeinkatuko dittue sanblasak, mezaren aurretik; 12:00xetan San Pion; eta 13:00ian Urkiko San Jose Obrero elizan eta Estaziño kaleko San Agustin elizan.

autuan

ELKAR OMENDUKO DABE ARMERIXA ESKOLAN

Armerixa Eskolaren "Ondo egindako lana" egitasmuaren 13. saiuan, Elkar Fundaziñua omendu eta errekonoziduko dabe. Otsaillaren 11n, 12:30xetan hasiko da solasaldixa eta Joxe Mari Sors (Elkar), Jon Jaka (Elkar), Markel Olano (Gipuzkoako Diputatu Nagusixa) eta Joan Mari Torrealdei euskal idazle eta kazetarixa izango dira parte hartzen. Ekitaldixa irekixa da, baiña juateko asmua izanez gero aurrez baieztatzia (943 20 32 44 telefonora deittuta) eskatu dabe antolatzailliak.

ARIZMENDIARRIETA ETA KOOPERATIBAK COLISEUAN

Otsaillaren 13an, 19:00etan, Gorka Urrestiren "Arizmendiarieta, el hombre cooperativo" lana emongo dabe Coliseoan. 97 miñutuko iraupena dakan lan horretan Fagor, Eroski eta Euskadiko Kutxa sortu zittuan Jose Maria Arizmendiarietaren historixa eta ibilbidia kontatzen dau egilliak.



- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar



104,0 FM



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Famelixeri arreta emoteko zerbitzu publikuen premiñia ikusten dabe

EH Bilduk Estaziño kalian daguan Ariel etxian famelixa arretarako zerbitzuak martxan ipintzia proposatzen dau, baiña gaur arte etxia erabili barik daguala ikusitta, urtarrilleko plenuan **Ariel etxiaren** lagapena Aldundixari 2017xan eskatu zetsela alkatiari gogorarazi zetsela diñue. Euren



berbetan, "2017ko azaruan, EH Bildu eta PSEren aldeko botuekin, Gipuzkoako Aldundiari Ariel Etxiaren lagapena eskatzia adostu genduan moziño bidez. Izan be, Aldundixak lagapena Elizari eginda detsa eta Eli-ziak ez dau eraikiña erabiltzen. Bestalde, Diputaziñuak eta Jaurlaritzak hiriburuan zerbitzu asko eskintzen dittue, baiña ez dira inguru honekin akordatzen". Alkatiak aspaldi hasi zittuan tramitiak, baiña gauzak zelán daguazen ikusitta EH Bilduk trami-tiak lehenbailehen berreskuratzeko eskaeria egin detsa atzera be.



21. Korrikako dendia zabaldu dabe AEK Euskaltegixan

Sostoatarren kalia daguan AEK Euskaltegixan 21. Korrikako materixalarekin dendia preparau dabe, kamisetak eta bestelakuak erosi nahi dittuenendako. As-telehenetik barixakura zabalduko dabe, 11:00etatik 12:30xetara eta 17:00etatik 19:00etara. Horrez gain, interneten, online-dendan erosteko aukeria be badago, www.korrika.eus/denda helbidian.

Egogaiñeko bihargiñak plenora eruan zittuen euren aldarrixak

Aurreko astian kaleratu genduan alkarrizketan iragarri genduan moduan, Egogain Gerontologia Zentruko bihargiñak asteleheneko plenora eruan zittuen euren aldarrixak eta bizi daben egoeria zein dan be azaldu zetsen Udaleko ordezarixeri. Bihargiñak diñue-nez, "hasiera batian geuk moziño bat aurkeztu genduan, baiña Udalak ez dau geure moziño hori onartu eta, horren orde, geure ustez oso apala eta lausoa dan beste testu bat aurkeztu desku. Egixa da alderdi politiko batzuren babesa jaso dogula, hain zuzen be EH

Bildu, Irabazi eta Podemos alderdixena, baiña gaiñontze-kuak Bozeramaillien Batzarrak adostu daben erdibideko tes-tua onartu dabe, besterik ez dabe egin". Adostutako tes-tuan Udalak adierazten dau kezkatuta daguala lan-gatazka honen luzapenak egoiliarreri eragiten detsen ondorixo kal-tegarrixengaittik eta, horrekin batera, gatazka honetan impli-katutako alderdixeri oingo egoeria desblokeatu eta gure nagusixeri emoten jakuen zerbitzuaren onerako adosta-suna billatzeko ahalik eta gehixen ahalegintzeko eska-

zitzen detse. Bihargiñen berbe-tan, "egixa esateko, gehixago espero genduan. Edozelan be, gehixago implikatzeko es-katu detsagu, gatazka ez da-bela ondo ezagutzen pentsa-

zitzen dogulako". Bixen bittar-tian, mobilizaziñuekin segitze-ko asmua dake eta eguazte-nian atzera be Donostira juan ziran, Diputaziño parian euren aldarrixa egitteko.



GHK-k eta Mankomunidiak hitzarmena siñatu dabe



Arcadio Benitez eta Jose Ignacio Asensio siñatzen dituzte dokumentuak.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak biohondakiñaren eta konpostatzearen kudeaketa hobetzeko lursail baten erabillera eskubidia emon de-tsa Debabarreneko Mankomunidiari. Aste honetan siñatu dabe horretarako hitzarmena Jose Ignacio Asensio, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidente eta Ingurumen diputatuak eta Arcadio Benitez, Debabarreneko Mankomunidadeko presidentiak.

Akordio horri esker, inausketatik eta lorezaintzatik sortzen diran hondakiñak lagatzeko toki-za eukiko dau eta Kontsortzioak, aldiz, hondakin horrek eskuragarri izango dittu, Epele eta Lapatxeko konpostatze-plantetan egituratzaille moduan erabiltzeko. Hitzarmenaren arabera, 20 urtetan erabiltzeko aukeria izango dabe, eta epia beste 10 urte gehixago luzatu leike. Lursaila lbur-Zelaizarretan dago eta 3.780 m²-ko azalera dauka.

Gorka Errasti izango da EH Bilduren alkategaixa

Eguazten illuntzian Bilgunian egindako asanbladan, EH Bilduren Eibarko alkategaixa Gorka Errasti Bernedo izatia berretsi eben. 1979xan Eibarren jaixo zan eta Enpresa Zientzietan Diplomatu eta Gizarte Lanean Graduatu da. 15 urte daroiaz Eibarko Udalian biharrian, Gizarte Zerbitzuetan hain zuzen be. Hori dala eta, "Eibarko errealidadia oso ondo ezagutzen" dabela diñue. 2015az geroztik EH Bilduko zinegotzixa da eta, alderditik azaldu dabenez, "gizarte bazterketaren aurrian tinko azaldu ohi da Gorka, pertsona konprometidua da, hortaz. Gizarte parekide, justu eta orekatu baten alde biharrian dihardu gaztetatik". Politikatik kanpora, antzerki munduan jardundakua be bada. Atzoz geroztik Eibarko Hauteskunde Batzordeko kidia da Errasti.



Munduko Janarixen Taillarrian Egiptoko janarixa probatu eben

...eta kitto! Euskara Elkartearen Ongi Etorri programaren baitan, ikasturte honetako Munduko Janari Taillarren bigarren saia egin zan martitzenian Portaleko sukaldian. Oinguan parte hartzera animau ziranak janari egipziarra dastatzeko aukeria izan eben: "Herrialde horretan oso ohikuak diran baba baltz lehorrak, berenjena prijituak eta espero ez genduan pastel goxo bat be probatu genduazen".

Taillarren arduradunen berbetan, "holako saiuak sukaldatzeko, munduko errezeta ezberdiñak ikasteko eta ezagutzen ez dittugun jatekuak gure egunerokotasunian sartzen juateko aukera edarra emoten dabe. Horrekin batera, kultura ezberdiñetako ohituretara gerturatzeko eta ikasteko beste modu bat be bada". Hurrengo taillarra otsailaren 26xan izango da, ordu eta toki berian, baiña oindiok ez dabe ziheztu egun horretan nungo janarixa preparauko daben. Dana dala, aurrerago emongo dogu horren barri, adi egon!

www.aldatze.eus

aldatze



VIII. ALDATZE
DENOK GARA
otsailaren 2an
11.00etan



Aurreko asteko eguenean ezuste handi bezain hunkigarria hartu zuen Rafael Zubizarretak Beheko Tokiko jubilatukideen aldetik. Berak azken urteotan Beheko Tokiari eskainitakoaren trukean izango zen, omenaldian jaso zituen txalo-zaparradek erakutsi zuten. Azkoitiko Martitte auzoko "Zendoia"-k gure herriko Pakita ezagutu zuen Benidorm-en Diputazioak antolatutako txango batean eta bizitza aldatuko zitzaion guztiz, gure artean ia hiru hamarkada betetzeraino. Pozik da Rafael, "Zendoia" ez da damu aldaketarekin. Eibartaria dugu dagoeneko.

RAFAEL ZUBIZARRETA (Beheko Tokiko jubilatua):

"Eibarri eskerrak ematea besterik ez zait geratzen"

- Zer moduz joan zen ekitaldia? Aurretik somatu zenuen zeozero edo erabateko ezustekoa izan zenuen?

Hartu nuen sorpresa erabatekoa izan zen, halakorik burutik pasatu ere ez! Hila-betea-edo izango da oparixoa egingo zidatela entzun nuela, baina halakorik... Opariak egiteko prestatzen ibili zirenak ere ondo asmatu zuten. Unai Narbaizak, Juan Mari bertsolaria izandakoaren semeak, kantatu zizkidan bertsoak ere kategoriakoak izan ziren. Badakit Mikel Arrillagak egindakoak dira, sakon-sakonekoak benetan. Nire burua eskertu beharrean ikusi nuen, modu batean edo bestean, eta beste hiru bertso bota nituen: amaitu ezinean ibili nintzen, urduri ere bai. Giro berezian bizi izan genuen guztia, zegoen jendetza, alkatea eta zinegotzi bat... Asmatu zuten antolatzaileek.

- Dagoeneko zenbat urte daramatzazu Eibarren? Eibartaria zarela esango zenuke?

Jakina! 27 urte dira Eibarrera etorri nintzela, 1991. urtean Pakitarekin ezkondu

eta gero. Dena dela, lehenengo hiru urteak gogorak egin zitzaizkidan. Emazteak bere ilobaren umea zaintzen zuen orduan eta neri kostatu zitzaidan lagunik egitea. Urkizu inguru honetan erdara besterik ez nuen entzuten eta nire buruari galdetzen nion: Eibarren edo Galizian nago ni? Gaur egun beste giro bat sumatzen dut: akaso ez da Azkoitiakoa izango, baina orain dela hamarkada batzuk baino euskara gehiago entzuten dut kalean.

Gero, Aitor Alberdik gonbidatu zidan...eta kitto!-ra gerturatzerara, ordurako bertso munduan ibilita bainengoen. Eta bertsolaritza batzordean aita moduan hartu ninduten hasieratik. Hortik aurrerakoan ez dut kexarik, alai eta pozik bizi naiz Eibarren.

- Hala ere, Azkoititik Eibarrera etortzerakoan zer galdu duzu, zer irabazi?

Han ere pisua bagenuen eta nire aldetik han geratuko ginen, baina Pakitak indar gehiago egin zuen... eta hona etortzea erabaki genuen. Hango lagunak lagatzea



Jaioterritik kilometro gutxira eman ditu azken urteak Rafael. Eibarrera ezkondu eta gurera ondo egokitu da, batez ere bizitza guztirako lagunak eginez Beheko Tokikoen artean. Bere zaletasunari eutsiz, hainbat bertsozale ere aurkitu ditu hemen.

kostatu zitzaidan pixka bat hasieran, noiz-behinka eurak bisitatzera ere joana naiz, zapatueta elkartera, Pakita kexu "hemen laga behar nauzu bakarrik?"... Baina gero hemen ere lagunak egin ditut, bertsozaleak euretako asko, eta ez naiz damutzen. Pozik nago Eibarren, eibartarra sentitzeraino. Eta emaztearekin ere zorte aparta izan dut, ondo konpontzen gara.

- Beheko Tokiko kide ezin zintzoagoa zaitugu, ezta? Egunero bertara joaten den horietakoa...

Bai. Egia esan, lagun asko egin ditut bertan. Zuzendaritzakoek ere semetzat hartu naute beti, bai lehengoek eta baita gaur egungoek ere, eta jarrera hori eskertu besterik ezin dut egin. Normalean asetero bost arratsaldetan joaten naiz eta hiru bat ordu ematen dut bertan, kafea har-

tu eta jarraian kartetan egiteko. Bestelako ekitaldietan ere ahalegintzen naiz parte hartzen; antolatzen dituzten hitzaldietara, esaterako, ia beti joaten naiz. Azken aldian, dena dela, bestelako joera bat ere nabaritu dut: jubilatutako berriek gutxiago etortzen direla... Bazkide kopurua ere zertxobait jaitsiko zen, baina 500etik 600era, hor ibiliko gara. Emakumeak gehiago dira.

- Egin dizuten omenaldiko sariak bereziak izan dira, baina aurretik ere txapel bat baino gehiago jantzi duzu zuk Beheko Tokin...

Kartetan ondo moldatu izan gara eta, bai, laupabost aldiz txapela ere eraman dugu etxera. Behin, gainera, tutean, briskan eta musean, hiruretan irabazi genuen, Aki-lino Gamiz bikotea nuela. Beste askorekin ere jokatu nago eta karta-jokoetan musa dut gogokoen.

- Bertso-zaletasuna nondik datorkizu?

Etxean jaso dugu zeozer. Nire amaren aitona, Diyo Soraluze, Goierriko onena izan zela diote eta Txirritarekin ere kantatu zuen. Aita zena ere oso ona zen bertso zaharrak kantatzen. Ni 12 urterekin hasi nintzen zeozertan, baina 14-15 urte nituela zaletu nintzen gehiago. Santa Ageda eskean izango nuen benetako hasiera eta, 18-19 urterekin, hor ibiltzen ginen baserriz-baserri kantatzen. 40 urtetik gora egingo nituen horrelakoetan, baita Eibarren ere. Eta toki askotan ibilitakoa naiz, Azkoitiko Martitetik aparte: Aiegin, Oñatin, Azpeitian Oinatz bailaran, Nuarben. Santa Ageda eskean ibiltzearen oso zalea izan naiz beti.

- Gutxitan izan bada ere, bertso-txapelketetara ere aurkeztu zara noizbaiten, ezta?



Daniel Beheko Tokiko presidentea, Cosme Rafaelena anaia (misiolaria Paraguain) eta Pakitarekin.

Urola bailarako bertsolariekin jardun izan dut batez ere. Baina, bai, parte hartu izan dut Gipuzkoako txapelketetan, eta baita amaierara iritsi ere behin. Egia esateko, txapelketetan beti erditik aurrera ibili naiz. Jakina, baziren hobeagoak. Baina lagunartean ibili naiz ni eroso. Lehiaketetan nintzena ez nuen eman sekula. Idatzi egin dut nik asko, trikitilariarentzat batez ere; oraindik irratian entzuten ditut.

- Zelako bertsoak dituzu gogoko?

Bertsoak, ona izateko, pikardia puntua behar du. Bestalde, gaur egun joera bestelakoa bada ere, bertso luzeen zalea ez naiz ni. Motzean jarduteak ez duelako esan nahi sakontasunik ez denik. Eta bertsoen arteko denbora tarte luzeak ere ez ditut gustuko, bertsoak bapatekotasuna behar duelako. Umorea eta alaitasuna ere hobe ez faltatzea.

- Gustuko bertsolaririk?

Askok. Gazte ginela, Lasarte, Baserri, Uztapide, Agirre, Joxe Lizaso, Xalbador bera... Gaur egungoen artean, jakina, Maialen, Arzallus, Egaña, Sebastian, Colina, Iturriaga... Lehen gehiago jarraitzen nien txapelketei ere, orain ez hainbeste. Bizkaiko azkena jarraitu dut: hor ere bertso luzeen alde egin zuten, txalo-zaparradak tarteko... Eta Lasarte eta Lazkao Txiki gauza asko esateko gauza ziren bertso motzean.

- Bertsolaritzak izan duen bilakaera...

Bertso Elkarteok lan ikaragarria egin dute, eta Euskal Herriko txapelketaren finalean 14.000 ikusle batzeak badu ere bere meritua. Zeinek pentsatu halakorik

orain dela urte batzuk? Gazte jendeak ere ondo jarraitzen ditu halakoak eta txapelketako eszenategi guztiak lepoz bete izateak badu zeresanik.

- Arrateko bertso-afaria ondo finkatu da. Han ere gai-jartzaile izan zinen urte askotan...

Lehen mailako bertsolariekin egiten den saioa dugu eta gu pozik eurekin, eta baita eurak ere eibartarrok. Hemen baino lehenago ibili nintzen gai-jartzaile Martitten bertan eta baita Nafarroan ere, bertsolari handiekin. Eztarriak ez zidan larregi laguntzen bertsoetan egiteko eta beste bide batzuk hartu behar izan nituen.

- Eta sasoi batean arraroagoa egingo zizaitzuna: gaur egun emakumezkoak gizonzkoekin parez-pare bertsoetan.

Hor bai eman dela aurrerapena. Bertso-eskolak izango zirenik orain dela urte batzuk pentsaezina zen. Baina emakumeak bertsoetan egiteko gaitasuna beti izan du; ez zitzaion egiten lagatzen. Gogoratzen dut behin, 25 bat urte izango nituen, emakumea bertsoetan eta guardia zibilek isiltzera behartu zutena. Baita 50 pezetako isuna ezarri ere. Bertan ginenok, koadrilakook, guztion artean ordaindu genuen isun hura.

- Golfo fama ere bazenuten-eta bertsolariok, ez dakit merezitakoa zen.

Bai, denetarik izan da. Baina arloetan modura. Nik inoiz ere ez dut edan bertsoetan egin aurretik. Urarekin onena, eta goizez bada, hobe. Alkoholarekin, hasi bai animoso, baina amaitzeko...



mikel arrillaga

“Berriro, ahobizi asko beti bezain ahobitxi, eta ondorioz, hamaika ahoitxi”

Ahobitxiak

Arratsaldeko zazpiak bost gutxi; bazatuz. Sartu zara eta eseri betiko aulki orlegian. Goizeko 06:00etan, altxatu, etxea mar txan jarri, lanera joan, umea ikastolatik jaso, parkean merienda eman eta abar...; eta bazatuz; miresgarria.

Aukera ugari zenuen: Yoga, Tai chi, ingelesa, makrame ikastaroa, igerilekua, pintxo-potea, etxeko besaulkia... Baina ez, euskara ikastea erabaki zenuen. Ariketak egiten dituzu, irakurri, idatzi, hitz egin... Horixe kostatzen zaizu gehien, hitz egitea. Egunean, egunean hobetzen ari bazara ere, askotan ikusten zaitut, esaldiak bukatu ezinez, katramilatuta, esan nahi duzunaren eta esan ahal duzunaren artean. Ahalegin izugarria egin, eta gainera zera esaten didazu: “Zelako pazientzia daukazu gurekin!”.

Atzo Berbalagun programarena proposatu nizun, on egingo lizukeela mintza talde batean parte hartzeak. Bazenekiela eran-

tzun zenidan, baina betikoa: denbora falta. Orduan atera zen ingurune hurbilaren gaia. Badakit familiar aukera gutxi daukazula; senarrak ez daki eta alabak barre egiten dizu euskaraz saiatzen zarenetan.

- *Eta lagunekin? Ba al daukazu aukerarik?*

- *Lagunekin? Bai, baina... Zaila da, haien artean euskaraz egiten dute, eta niri erdaraz...*

- *Benetan? Zuri erdaraz? Baina dena ulertzen duzu...*

- *Nik esaten diet euskaraz egiteko, baina ez, ez zaie ateratzen...*

Berriro, ahobizi asko beti bezain ahobitxi, eta ondorioz, hamaika ahoitxi. Ikasleak burutik kea dariela euskaltegietan, irten kale-ra eta, gainera, ia erregutu egin behar lagunei, zer eta euskaraz egin diezaieten; kaleak kale. Baina tira... Etorriko da txapatxoa luzitzeko aukera gehiago.



iñaki ugarteburu

“Triste egoteko arrazoi asko izanda ere, norberaren jarrerak zerikusi handia du”

Negu gorria?

Orain dela egun batzuk lagun batek esan zidan aurten urtarilaren 21a zela urteko egunik tristeena; Blue Monday deitzen diote. Egia esan ez dakit zertan oinarritzen den, baina imajina dezaket: astelehena, neguaren erdi-erdian, egun motza... Gaur urtarilaren 28a da, baina antzera.

Panorama ikusirik –euria, hotza, iluntasuna–, ez dut erremedio hobegorik lanetik irten eta etxera joatea baino; eta, nola ez, telebista jarri. Venezuelan, saltsa-maltsa beldurgarria; Filipinetan, hamarnaka hildako atentatu batean; Gibraltarreko Itsasartean 769 lagun hil dira 2018. urtean. Larregitxo niretzat.

Telebista alde batera laga eta leihotik begira jarri. Euriak dihardu, baina kalean jendea dabil. Paseatzera aterako naiz; guarda-

sola hartu eta euriari aurre egingo diot. Berrogeita bost minutu kalean gora kalean behera, bizpahiru lagun agurtu, asteburuko kontuak gogoratu eta gutxienez gorputza zertxobait astindu dut; hobeto sentitzen naiz... Etxera ailegatu eta afaria prestatu: porru-patatak eta arraina. Badatoz familiakoak, etxea epel dago, afaria animatua egunean zehar egindakoak kontatzen, berba egiteko txanda eskatu beharra dago, eta astelehena gaindituta. Ez da horrenbesterako izan... Eta igartzen da eguna luzatzen doala.

Ez dut zalantzarik triste egoteko arrazoi asko izan dezakegunik, baina norberaren jarrerak zerikusi handia duela ere, seguru nago. Baloratu ditzagun gauza txikiak, irribarreak, besarkadak, laztanak. Animo, lagunok!

Antzerkia iragarri dute otsailetik apirilera. Eskaintza distiratsua jasoko dute Coliseoak eta Hezkuntza Esparruak, "eibartarron gozamenerako", eta drama sakonetan bustiko gara, barre zaparradak eragingo dizkigute, komedia epeletan kikilduko gara eta dantza boladek ileak harrotuko dizkigute ikuskizunekin. Zentzuak piztu, denetarik biziko dugulako hilabete bi hauetan zehar eskainiko diren 22 ekitaldietan.



Martitzen eguerdian aurkeztu zituzten 42. Antzerki Jardunaldiak, antolatzaile eta hainbat agintariek.

Otsaila euria, haizea eta hotza da Euskal Herrian. Eibarren, ordea, antzerkia da. Antzeztokitik kanpo, hor konpon. Jaialdi esanguratsuenetan distira egiten duten aktore eta konpainiak ikusteko aukera daukagu bi hilabetetan zehar, eta Coliseora eta Hezkuntza Esparrura prozesioak egingo dituzte antzerki-gosez dauden eibartarrek. Otsailaren 26an egingo da harrera-ekitaldia eta apirilaren 7an itxiko da teloloia. Antzerkigintzako izar bategen emango die hasiera 42. Antzerki Jardunaldiei eta etxeko antzerki-taldeak emango die amaiera. Tartean antzerkia,

dantza, magia eta maskarak izango ditugu.

Estatuko antzerkigintzako izen handienetakoa da Concha Velasco. Ez du aurkezpen berezirik behar. Jesus Cimarro ermuarrak, bestetik, ibilbide handia egin du antzerki ekoizpenaren esparruan, erreferente bihurtu arte. 'Antzezlea eta ekoizlea' hitzaldi-solasaldiarekin hasiera emango diete An-

Antzerki sasoia hastear da



Kukai Dantza & Sharon Fridmanen "Erritu" dantzan zentratuko da.



"El funeral" komedia bi egunetan izango da ikusgai.

Antzerki Jardunaldiei otsailaren 26an 19:00etan Coliseoan, eta euren ogibideen inguruan go-goeta egingo dute Juan Ortegak aurkeztutako berbaldian. Sarrera doakoa izango da, "aretoaren edukiera bete arte", antolatzaileen berbetan.

Solasaldian ez ezik taula gainean ere jardungo du Concha Velascok. Izan ere, 'El funeral' izeneko antzezlanaren taularatuko

du hilaren 27 eta 28an 20:30ean Coliseoan. Manuel M. Velascok, bere semeak, idatzi eta zuzentzen duen antzezlanaren heriotza kontatzen digu.

Velascotarren lanaren ondoren etorriko dira Rafael Alvarez 'El Brujo' 'La luz oscura' lanarekin; 'Perez, el Ratoncito, no nace, se hace' haur antzerkia; 'Solitudes' maskara eta keinu

antzerkia; 'Un poyo rojo' dantza eta antzerki ikuskizun argentinarra; Miguel Muñoz, Mag Marin eta Mago Valen magoak; Gloria Muñoz antzezlea eta 'Mestiza' lana; 'Ludo Circus Show' antzerki- eta zirko-ikuskizuna; Leongo Unibertsitateko taldearen 'Aquí la tierra' lana; Miguel Rellan, Carmer Ruiz eta Eloy Azorin bezalako aktoreak batzen dituen '7 años' antzez-lana; Gabino Diegok antzeztzen duen 'El desguace de las musas'; Nao d'amores eta Madrilgo Antzerki Klasikoaren Konpainia Nazionalaren 'Comedia Aquilana'; eta amaitzeko, etxe-koen lana, Narruzko Zezen an-

tzerki-taldearen 'La comedia de Carla y Luisa'.

Euskarazko lau antzeztan

Egitaraua osatzen duten hainbat konpainia esanguratsuek Eibarren estreinatuko dituzte ikuskizunak eta euskal antzerkigintzaren aldeko "ahal-egin berezia" egin dute antolatzaileek, "konpainia eta emanaldi interesgarri eta lileragarriak ekarriz". Guztira euskarazko lau antzeztan egongo dira ikusgai eta, bestetik, Kukai Dantza Taldeak dantza-ikuskizuna eskainiko du Sharon Fridmanekin martxoaren 6an Coliseoan.



Rafael Alvarez "El Brujo"-k "La Luz Oscura" antzeztuko du.

AURRESALMENTA

- Otsailak 2, 3 eta 4: 10:00etatik 14:00etara, Coliseoan.
- Funtzio bakoitza hasi baino orubete lehenago, dagokion antzokiaren leihatilan.
- Kutxabank bitartez otsailaren 2tik, 10:00etatik aurrera.
- Otsailaren 4tik, Coliseoan, astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era.

OHIZKO SALMENTA

- Antzokiko leihatilan funtzioa hasi baino ordu erdi lehenago.

PREZIOAK (azken urteotakoei eutsi diete aurten ere)

- Otsailak 27 eta 28 eta martxoak 7 eta 24: 15 euro
- Martxoak 9, 23 eta 30 eta apirilak 7: 5 euro
- Beste funtzioak: 12 euro

DESKONTUAK

- Coliseoaren Laguna txarteldunei murriztapena dagokie 5 euro baino gehiagoko sarreretan: tarifa arrunta: 15 euro (10,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin) eta 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Lagunarekin).
- Sarrerak Coliseoaren Laguna salneurriarekin erosituz gero, aretora sartzeko beharrezkoa izango da txartela aurkeztea



Lipus eta Urrutia dira Iturriagaren "Hozkailua" dramaren protagonistak.

Concha Velasco aktoreak eta Jesus Cimarro ekoizleak hartuko dute parte hasierako ekitaldian

Euskaraz ikusi ahal izango den lehen lana Artedramaren 'Hozkailua' izango da, martxoaren 10ean 20:30ean Hezkuntza Esparruan. 'Errautsak' eta 'Francoren bilobarri gutuna' lanekin arrakasta eduki ondoren, Unai Iturriaga bertsolariak benetako adiskidetasuna lantzen duen antzeztana sortu du. Ander Lipus eta Patricia Urrutia dira Manex Fuchsek zuzentzen duen lanaren protagonistak, eta 80ko hamarkadan kokatzen da istorioa. "Garai beltza eta gogorra izan zen, eta mobilizazioak eta inkonformismoa eguneroko gaiak ziren", sortzaileen berbetan.

Martxoaren 21ean 'Ele!' antzeztana jasoko du Coliseoak 20:30ean. Euskera eta gaztelania uztartzen dira Estepan Urkiaga 'Lauaxeta' eta Federico Garcia Lorcarekin testuak tartekatzen dituen antzeztan honetan, itxuraz elkarrengandik oso urrun zeuden bi mundu gurutzatuz.

Pertsonaia absurduen, komikoaren eta 60ko hamarkadako langile-tradizioaren arte-

an mugitzen da euskarazko hurrengo antzeztana. Zirkoa, dantza, klowna eta perkusioa uztartzen dira Aire Aire, Gas-teizko KaldeArte eta Bilboko Kalealdia bultzatzen duten 'Lurrak' ikuskizunean. Euskal kulturaren oinarritutako formatu handiko zirko-ikuskizuna ekoiztea dute helburu, bertako artistekin, kalitatearekin, edukiarekin eta ikusgarritasunarekin. Martxoaren 28an egongo da ikusgai 20:30ean Coliseoan.

Umeek ere izango dute euskarazko lanez gozatzeko aukera. Martxoaren 30an 'Martina-ren parke fantastikoa' jasoko du Coliseoak 17:00etan, Martina izeneko pertsonaia protagonista duen haurrentzako musikala. Aktore lan, musika, berba, irudi eta eszenografia zoragarri batek osatzen dute imajinario unibertsal bezain pertsonala: haurtzarora.

Coliseoaren laguna egiteko momentua

Martitzenean egin zen Antzerki Jardunaldien aurkezpena, eta Miguel de los Toyos alkateak Jardunaldien sorrera eta Txema Cornago ekarri zituen gogora. Orain dela sei urte hil zen Cornagok Antzerki Jardunaldiak bultzatzeko egingandako lana goraiatu zuen, baina bera barik ere Jardunaldiek aurrera egiteko izan duten gaitasuna azpimarratu zuen.

EGITARAUA

OTSAILEAN

| | | | | |
|-----------------|-------|--|-----------|-------------------|
| 26 (martitzena) | 19:00 | "La intérprete y el productor" hitzaldia, Concha Velascoekin | | Coliseoan |
| 27 (eguztzena) | 20:30 | "El funeral" (Pentación, Madril) | 90 minutu | 15 euro Coliseoan |
| 28 (eguztzena) | 20:30 | "El funeral" (Pentación, Madril) | 90 minutu | 15 euro Coliseoan |

MARTXOAN

| | | | | |
|-----------------------|--------------|--|------------|-----------------------------|
| 1 (barixakua) | 17:00 | XVII. Giza Irudien Erakustaldia (M.P.C.) | | Untzagan eta T. Etxebarrian |
| 6 (eguztzena) | 20:30 | "Erritu" (Kukai, Gipuzkoa) | 95 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 7 (eguztzena) | 20:30 | "La Luz Oscura" (El Brujo, Madril) | 105 minutu | 15 euro Hezkuntza Esparruan |
| 9 (zapatua) | 17:00 | "Pérez, el Ratoncito..." (Titirigui, Madril) | 45 minutu | 5 euro Coliseoan |
| 10 (domeka) | 20:30 | "Hozkailua" (Artedrama, Bizkaia) | 60 minutu | 12 euro Hezkuntza Esparruan |
| 14 (eguztzena) | 20:30 | "Solitudes" (Kulunka, Gipuzkoa) | 80 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 15 (barixakua) | 20:30 | "Un poyo rojo" (Un poyo rojo, Argentina) | 60 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 17 (domeka) | 17:00 | "Gala Internac. Magia" (Fabrica de Magos, Bizkaia) | 90 minutu | 12 euro Coliseoan |
| | 20:30 | "Gala Internac. Magia" (Fabrica de Magos, Bizkaia) | 90 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 19 (martitzena) | 20:30 | "Mestiza" (Emilia Yagüe, Madril) | 80 minutu | 12 euro Hezkuntza Esparruan |
| 21 (eguztzena) | 20:30 | "ELE!" (ELE, Bizkaia) | 90 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 22 (barixakua) | 20:30 | "Ludo Circus Show" (Ludo Circus, Sevilla) | 60 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 23 (zapatua) | 20:30 | "Aquí en la Tierra" (El Mayal, Universidad de León) | 85 minutu | 5 euro Hezkuntza Esparruan |
| 24 (domeka) | 20:30 | "7 años" (Producciones Contemporáneas, Madril) | 75 minutu | 15 euro Coliseoan |
| 27 (eguztzena) | 20:30 | "El desguace de las musas" (La Zaranda, Bartzelona) | 90 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 28 (eguztzena) | 20:30 | "Lurrak" (Lurrak, Bizkaia) | 70 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 30 (zapatua) | 17:00 | "Martinaren Parke..." (Producc. Maestras, Nafarroa) | 55 minutu | 5 euro Coliseoan |

APIRILEAN

| | | | | |
|----------------|-------|---|-----------|----------------------------|
| 1 (astelehena) | 20:30 | "Comedia Aquilana" (Nad D'Amores, Segovia) | 60 minutu | 12 euro Coliseoan |
| 7 (domeka) | 20:30 | "La comedia de Carla y Luisa" (Narruzko Zezen, Eibar) | 65 minutu | 5 euro Hezkuntza Esparruan |

Alkatearen ustez, gainera, Antzerki Jardunaldiak egiten diren sasoi hau aproposa izan daiteke Coliseoaren Laguna txartela egiteko. Izan ere, txartela dutenei murriztapena dagokie 5 euro baino gehiagoko sarreretan. Horrela, sarrerak 15 euro balio duenean, Coliseoaren Laguna txartela dutenek 10,50 euro ordainduko du; eta 12 eurokoa denean, 8,50 euro. Sarrerak Coliseoaren Laguna salneurriarekin erosiz gero, aretora sartzeko beharrezkoa izango da txartela aurkeztea.



"Martinaren Parke Fantastikoa" 5 urteko gorako haurrentzako musika martxoaren 30ean eskainiko dute.

Jose Angel Maria Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordeak Antzerki Jar-

naldien garrantzia azpimarratu zuen aurkezpenean. "Kulturarako ateak irekitzen dute Jardunaldiek, antzerkira joateko egun bereziak izaten dira. Zorionak eman nahi dizkiet antolatzaileei, Jardunaldiek agerian laga dutelako irauteko ahalmena dutela, gauzak irauteko egiten direla, alegia". Horrekin batera, herriaren erantzuna ere goraiatu zuen. "Herriak eta publikoak egiten zaion eskaintza hori onartzen jakin du. Alde horretatik jaialdiak herriari bizitasuna ematen dion bezala, herriak ere jaialdiari bizitasuna ematen dio".

Denis Itxaso Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Diputatuaren ustez, bestetik, Jar-

naldiak Gipuzkoako hitzordurik garrantzitsuenak dira, antzerkiari dagokionez. "Zorionak, Eibarko herriak eta publikoak emandako erantzunarengatik, Jardunaldiak bere egin dituztelako. Azpimarratzekoa da, sarritan erreza ez den arren, beti ahalegintzen direla gauza berriak ekartzen eta erakusten, alde horretatik Jardunaldiek kutsu abangoardista dute".

Aurrekontua ia 185.000 eurokoa izango da aurten. Diru gehiena Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ipintzen dute, baina babesleen laguntza ere badute. Aurrekontuko diru gehiena (135.000 euro) antzezlanen kontratazioetan gastatzen da.



ELE! euskaraz eta gaztelaraz egindako lanak ordu eta erdi iraungo du.

Mikel Lizarralderen bizitza irauli egin zen orain dela urtebete. Bikoitza ikusten hasi zen, medikura joan eta, probak egin ondoren, esklerosi anizkoitza zuela esan zioten. Gaixotasunak ez du sendabiderik momentuz, baina bizipozez egiten dio aurre Lizarraldek. Kirola lagun, Zegama-Aizkorri egiteko dortsala eskatu du. Eta zerumugan, Nepal. eibar.org/blogak/lizarralde blogean ematen du bere bizipenen berri.

- Hemen eta orain, zer moduz zaude?

Oso ondo! Orain dela urtebete horrela egongo nintzen esango bazidaten, ez nuke sinistuko. Domekan beteko da sintomak igarri nituen momentuaren urteurrena, San Blas egunean.

- Zer pasatu zitzaizun burutik sendagileak esklerosi anizkoitza duzula esan zizunean?

Ordura arteko bizitza amaitu egin zela. Ospitaletik irten eta berehala gauza asko zalantzan nituen. Hilabete baino gehiago

egon nintzen kotxea hartu gabe eta lanera ganoraz itzuliko nintzen zalantza neukan. Hasieran umeak zaintzeko beldurra nuen, ez nekien zaintzeko kapaz izango nintzen. Emazteak hemendik gutxira moldakaitza izan daitekeen pertsona batekin egon nahi izango zuen? Gaitzak berak dituen sintomekin batu zitzaidan guzti hori eta beldurra eman zidan hasieran. Ospitaletik irten eta lehengo astean apatia antzekoa sentitu nuen. "Hau amaitu da edo amaitu egingo da", esaten nion nire buruari.

- Berehala eman zenion buelta apatia sentsazio horri?

Bai, eta demaseko laguntza eduki nuen horretarako. Lehenik, lagun neurologo bat ospitalera etorri zen gaixotasuna zer den eta zer pasatu ahal den azaltzera. Izan ere, gauza bat da interneten irakurtzen duzuna eta beste bat gertatu ahal dena. Bestetik, Maria nire emazteak monumentu bat merezi du, izugarrizko laguntza eman didalako. Bera barik agian zuloan egongo nintzateke. Gurasoen laguntza ere, demasa izan da. Codesyntaxeko lankideek lasai egoteko esan zidaten hasieratik eta, gero, aurrera egiteko animoa eman zidaten.

- Nola konturatu zinen zerbait ez zihola ondo?

Mendian antxitxiketan nenbilela. San Salvador, Topinburu eta Galdaramiño inguruan ibili nintzen eta aldapan gora ondo sentitu nintzen, pixka bat nekatuta baina ondo. Azken hiru-lau egunetan kirola egin nuen eta normala zen nekatuta egotea. Aldapan behera, ordea, bikoitza ikusten hasi nintzen. Gelditzerakoan ondo ikusten nuen. Galdaramiñora ondo igo nintzen, baina beheanzkoan bikoitza ikusten nuen berriz. Mugikorra eskura neukan eta ikeritzen hasi nintzen, eta nonbaiten ipintzen zuen gehiegizko esfortzuagatik izan zite-



MIKEL LIZARRALDE:

“Esklerosi anizkoitza duen bakoitzak bere maratonia aurkitu behar du”



MARITXU AREITIO REMENTERIA

1. URTEURRENA (2018-I-2)

“Betirako gure bihotzetan” –ETXEKOAK–

Haren aldeko URTEURREN MEZA ospatuko da otsailaren 3an (domekan), 12.00etan hasita, San Andres parrokian.



keela. Horrekin gelditu nintzen. Hurrengo egunean jaiki nintzenezan bikoitza ikusi nuen ordu erdiz, eta hurrengo egunean berdin. Oinez joan nintzen lanera, ondo, eta lankideei galdetu nien inoiz antzeko zerbait gertatu ote zitzaien. "Ez al da iktus bat izango!", bota zuen batek. Anbulatorkia deitu nuen eta zita hartzeko egun batzuk itxaron behar nituenez, gurasoei deitu eta Mendarora eraman ninduten. Probetan ez zuten ezer ikusten. Handik bi egunetara Zumarragara joan nintzen erresonantzia egitera eta buruan orban batzuk nituela esan zidaten. Lagun neurologoa eta familiako medikua etorri ziren, eta desmielinizazioa zela esan zidaten. Neurologoak esan zidan esklerosi anizkoitza izan zitekeela, eta hori izango zela onartu nuen. Ez nuen denborarik galdu nahi, ukapen fasetik pasatzea. Ondoren, puntzio lunbarra egin zidaten eta martxoan baieztapena jaso nuen: esklerosi anizkoitza nuen.

- Nola egin zenion aurre?

45 egunez kortikoideak hartzen egon nintzen, antiinflamatorio eraginkor bat, baina albo-kalteak ditu. Lo egiteko zailtasunak nituen eta alde horretatik gogorra izan zen. Bestetik, diagnostikoa jaso aurretik kirol asko egiten nuen eta ezin nintzen ezer egin gabe egon. Diagnostikoa jaso aurretik emazteari esan nion demaseko sasoiaren nengoela. Maratoia egin nuen bi hilabete lehenago eta inoizko denborarik onenak egiten nituen antxixiketan. Guzti hori batuta beherakada izan nuen, baina poliki-poliki aurrera egin nuen. Hobeto sentitzen hasi nintzen, umorea aldatu zitzaidan, eta igerian hasi nintzenezan bizipoza eman zidan. Nire burua gurgildun aukian imajinatzen nuen. Nahiz eta estatistikak esan %20k (buruz nabili) amaitzen dutela gurgildun aukian, nik 20 hori 100 bihurtzen nuen.

- Diagnostikoak bizitza aldatu ditu?

Bai. Zaplada bat izan da, abisu bat. "Begurira zer egon zaren galtzekotan", esaten nion nire buruari hasieran. Hemen eta orain, daukadana gozatu eta aprobetxatu.



Horrela pentsatzen dut. Batzuk diote esklerosi anizkoitza izatea bizitzan karta txarrak tokatzea dela, eta bai, karta txarra da, baina nire kasuan gainerako kartak oso onak dira. Gainera, mundu osoko kontestua aintzat hartzen badugu, ez nago kexatzeko moduan. Beraz, ez naiz negarrez ibiliko eta ez dut penarik eman edo gupidarik sortu nahi. Niretzat zaplada izan da, baina ingurukoentzat ere bai. Behin bizi gara eta ahal den heinean gozatu behar dugu. Jarrera kontua da. Orain ondo nago eta oraina aprobetxatu behar dut. Bihar auskalo. Momentu txarrak etorriko dira, ez dut pentsatzen dena zoragarri joango denik, baina

"Etorriko diren kolpeei indarrarekin erantzuteko asmoz nago"

ondo joango da, etorriko diren kolpeei indarrarekin erantzuteko asmoz nagoelako.

- Kirola egitea garrantzitsua da gaixotasunari aurre egiteko?

Insomnia nuenean kirola egiten nuen nekatu eta lo egiteko. Gero, nire buruari erronka txikiak jarri nizkion. Igerilekuan gero eta igeri gehiago egitea, mendira oinez igotzea, bizikletan Aixolako presara joan eta buelta bat ematea... Bizipoza ematen zidan eta gurgildun aukiarenean ideia albo batera uzten joan nintzen. Lorpentxo horiek, egunerokoan lortutako lorpenak bezala (umeak zaintzea, lanera bueltatzea, kotxea hartzea...), oso garrantzitsuak dira. Ondoren, Getaria-Zarautz igeriketa proba amaitu nuen eta demaseko arrakasta izan zen niretzat. Txarto ez nengoela konbentzitzeko lagundu zidan kirolak, asko lagundu dit, baina koadro handi baten barruan ikusten dut guztia eta hori zati bat besterik ez da. Bizitza normala egin ahal nuela esan zidaten, baina nire bizitza normala kirola egitea zen eta neurologoak esan zidan ultramaratoiak egiten ez nituen bitartean edozer gauza egin ahal nuela. Ultra berba kendu eta maratoi berbarekin geratu nintzen.

- Zegama-Aizkorri mendi-maratoia begitartan daukazu. Zergatik?

Ni hobeto egoteko erreminta moduan hartzen dut. Motibazioa da, ez azken helburua. Amaitzen badut, demaseko poza hartuko dut, baina amaierako helburua bizitza ona edukitzea da eta hiltzen naizenean pozik egotea. Hiru maratoi eta hainbat erdi maratoi egin ditut, eta egin bariko gauzak egin nahi nituen. Orduan, Getaria-Zarautz igeriketa proba egin nuen iaz eta Zegama-Aizkorri lasterketa berezia da niretzat. Pentsatzen dut orain arte egin ez ditudan gauzak egiteko momentu aproposa dela. Gainera, uste dut esklerosi anizkoitza duen inork ez duela egin, beraz, lehenengoa izan nahi dut. Gaixotasunari buruzko jakintza zabaldu nahiko nuke eta gazte bati gaixotasun hau diagnostikatzen badiote, beldurrik izan ez dezala. Bakoitzak bere maratoia aurkitu behar du.

LUIS MARI GISASOLA ITURRICASTILLO

(2019-I-23AN HIL ZEN, 73 URTEREKIN)



"Betirako gure bihotzetan" —ETXEKOAK—

Bere aldeko IRTEERA MEZA ospatuko da otsailaren 3an (domekan), 12.00etan hasita, San Andres parrokan.



Mikel Azkargorta (pilotaria)

“Udaberriko Txapelketan finalera iritsi nahi dut lehengusuarekin”

XXIV. Eibarko Kirol Sarietan garaikurra eskuratu zuen Mikel Azkargorta pilotariak, 2018. urtea borobiltzeko falta zitzaiona. 15 urte ditu eta bidea egiten ari da pilotaren munduan, baina orain buru-belarri dabil azterketetan murgilduta. Zortzi urte daramatza pilota-eskolan eta Mikel Camina lehengusuarekin erronka politak ditu aurretik.

- Kirol Saria jasotzen amaitu zenuen urtea. Nolako izan zen 2018a?

Urte ona izan zen. Eskuz binakakoan finalera iritsi nintzen Udaberriko Txapelketan Iritz Astigarraga azkoitiarrarekin, baina 22-8 galdu genuen; eta lau eta erdiko Gipuzkoako Txapelketako finalera ere heldu nintzen eskuz banakakoan, baina hori ere galdu egin nuen.

- Nola hasi zinen pilotan jokatzeko?

Telebistan ikusten nuen eta aitarekin pilotan egitera joaten nintzen txikitik, eta zazpi urterekin pilota-eskolan eman nuen izena. Oso gustora sentitu nintzen hasieratik.

- Zortzi urte daramatzazu taldean. Askok eman dute amore bidean?


Nire adineko jendeak ez dauka pilotarekiko hainbeste afizio, baina orain jende gazte asko sartu da taldera. Posible da eurretako batzuk gero foballera edo beste kirol batera pasatzea, baina hortik zerbait irtingo dela uste dut.

- Beste kirolik egin duzu?

Igeriketan ibili nintzen, baina utzi egin nuen. Bestetik, Kezka Dantza Taldean ere egon nintzen hainbat urtetan, baina ingelesa, pilota eta klase partikularrak jasotzen nituen zerbait aukeratu behar nuen eta dantza uztea erabaki nuen.

- Nahiago bakarka edo binaka?

Binaka. Bakarka presio handiagoa sentitzen dut eta binakakoan, aldiz, presioa baturatu egiten da.



- Zein postutan jokatzeko duzu?

Aurrelari moduan. Orain lehengusuarekin jokatzeko dut, Mikel Caminarekin, ni baino urtebete gazteagoa.

- Frontoi osoan edo lau eta erdian nahia- go duzu jokatu?

Lau eta erdian jokatu izan dut beti. Frontoi osoan jokatzeko aukera daukat, baina eskuetako mina izaten dut eta nahiago dut lau eta erdian jokatu. Laz birritan eduki nituen eskuetako arazoak eta orain ere mintuta daukat.

- Zein da zure idoloa pilotaren munduan?

Aimar Olaizola. Txikitatik gustatu izan zait eta 39 urterekin goian jarraitzen du.

- Zein da zure frontoirik gustokoena?

Astelena frontoia nire kuttuna da, baina orain dela gutxi Tolosako Beotibar frontoian jokatu nuen eta asko gustatu zitzaidan pilota frontisetik nola irteten zen.

- Zeintzuk dira zure erronkak 2019an?

Udaberriko Txapelketan finalera iritsi nahi dut lehengusuarekin.

MAITANECASTILLOTAOLA XII. urteurrena

*Bizipozez beteta esnatzen den / Txoritxo kantarienari
eskerrik beroena ematea / besterik ez zaigu geratzen;
maitasunez, alaitasunez, itxaronpentsu / zuk irakatsi zenigun bezela.
Zure irribarrerik goxoena gogoratzeak, / aurrera egiteko kemena
emango digulako; / bide luze honetan hau hasiera besterik ez da eta.
Estali arren ez baita / itzaltzen izarrak duen distira.*

“ZURE TROPA”



Play-back lehiaketa Aratosteetan LH 5. eta 6. mailakoentzat

Aratosteak gero eta gertuago daude eta, aurten ere, Aratosteetako play-back lehiaketa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Martxoaren 3an (Aratoste Domekan) izango da, 17:00etatik aurrera Untzaga plazan eta, parte hartu ahal izateko, Eibarko ikastetxeren batean aipatutako mailako ikaslea izan beharko da eta, gainera, lehiakideak kokojantzita joan beharko dira. Play-backera aurkeztutako abestiak euskaraz izan beharko dira. Horrez gain, parte hartzen duten taldeak, asko jota, sei la-

gunez osatutakoak izango dira eta partaide edo talde bakoitzak abesti bakarraren play-backa eta dantza egingo du.

Irabazleentzat hainbat sari

banatuko dituzte: Interpretatzaile onenari sari berezia; Koreografia onenari sari berezia; eta Mozorro onenari sari berezia. Horrez gain, parte-hartzaile

guztiak opari bat jasoko dute. Irabazleak epaimahai batek aukeratuko ditu eta, horretarako, koreografia eta play-backa egiteko modua edukiko dituzte kontuan.

Izena emateko, lehiakideek abestia MP3 formatuan grabatu beharko dute eta, horrez gain, izen-emate fitxako datuak bete beharko dituzte (taldearen izena + ikastetxea + aukeratutako abestiaren izenburua + partaideen izen-abizenak). Biak (abestia eta izen-emate fitxa) normalizazioa@etakitto.eus helbidera bidali beharko dituzte, otsailaren 22a baino lehen.



LARRIALDI EGOERAN GAUDE

OTSAILAK 2

EUSKAL HERRIAN *bizi* eguna

11:00 Kedada gaztebixian eta gazte mugimenduan eskutik:

- EH bizi dinamikaren aurkezpena
- EHn bizi eta ikasi nahi dugulako
- "Festa dezagun gaurdanik geroa"

13:30 Hamaiketakoa

Desobedientziatik ekintzara

15:00 Makarronada

Bazkaloste animatua

16:30 Jolasak

18:30 PREKARIETATEARI
ateak itxi!
NALUA

#EHBizi

GAZTE MUGIMENDUAREN ELKARTEA

EIBARKO IKASLE TALDEA

EMAI

EIBARKO LIBRE

Egitarau betearekin ospatuko dute bihar Euskal Herrian Bizi eguna

Eibarko Ikasle Taldea, Nalua Eibarko talde feminista, Ernai, Jaixak Herrixak Herrixandako, Eibarko Libre eta Eibarko Gaztetxiak osatzen duten Eibarko Gazte Mugimenduaren eskutik, bihar Euskal Herrian Bizi eguna egingo da, "eragile ezberdinen arteko topagune eta indarrak batzeko egun gisa". Horretarako goizetik hasiko den egitaraua prestatu dute: 11:00etan Gaztetxean elkartuko dira eta, gazte-mugimenduaren eskutik, EH Bizi dinamikaren aurkezpena egingo dute; 13:30ean, berriz, hamaiketakoa egiteko tarte hartuko dute eta bazkaria, berriz, 15:00etan hasiko da ("makarronada"). Bazkaloste "animatua" egiteko asmoz, 16:30ean jolasak



hasiko dituzte eta, egitaraua biribiltzeko, 18:30ean "Prekarietateari ateak itxi" izenburuko antolatu dute.

Antolatzaileek gazte guztiak parte hartzea animatu nahi dituzte. Bestalde, bazkaltzera joan nahi dutenei erekin kontaktuan ipintzeko eskatu dute, horretarako Facebook (Ernai Eibarren profila) erabilia.

MAIALEN LOPEZ IGLESIAS

9. URTEURRENA (2010-I-30)

"Zortzi urte badira ere gure aldetik joan zinela, zure maitasunak eta irribarreak gure bidea argitzen jarraitzen du. Asko maite zaitugu"

ETXEKOEK





RAY MUÑOZ: "Haurrak sanblasak bedeinkatzera".

Waterpoloko gizonetzkoen taldea Euskadiko Koparen irabazle

Aurreko asteburuan Iruñako UPNAn jokaturako lauko finaletan izan ziren Urbat IKEko senior mailako talde biak eta, hori gutxi balitz, gai izan ziren finalerara heltzeko. Hori bai, azkenean gizonetzkoek txapela jantzi zuten moduan, emakumezkoak txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan zuten. Finalerdietan gizonetzkoen taldeak egindakoa handia izan zen, Askartza Claretekin 7-3 galtzen joan eta gero, azken unean 8na berdintzea lortu baitzuen. Penaltietan bizkaitarrak baino gehiago izan

ziren eta 5-3 irabazi zuten. Finallean antzerako bidetik jo zuten eibartarrek eta, 3-6 galtzen joan ondoren, partidua irauli eta garaipen handia lortu zuten WP9802 taldearen aurrean (8-9). Urbat IKEko emakumezkoen taldea, bestalde, finalerdietan 9-5 nagusitu zen Leioaren aurrean, gizonetzkoen ondoan askoz ere erosoagoa izan zen partiduan. Behin finalera pasatuta, eibartarrek indartsu hasi zuten WP9802-ren aurkako partidua (finalistak eibartarrak eta nafarrak izan ziren partidua bietan), 2-4 aurretik ipintzerai-



no, baina hirugarren zati kaxkarrak min egin zien eta, azkenean, amore eman behar izan zuten, 7-6 galduta. Emaitza bi-

kaina, beraz, Urbat Urkotronik-eko ordezkariak lortutakoa denboraldiko lehen txapelketan, Euskadiko Kopan.

Eibarrek Girona hartuko du domeka arratsaldean Ipuruan



Zapatutik domekara atzeratutako partidua jokatu da etzi Ipuruan, 18:30etik hasita, sailkapenarendako esanahi berezia izango duen neurketan. Une honetan eibartarrek bi puntu gehiago dituzte, batez ere Gironan 2-3 irabazitako partiduari esker; bigarren itzuliko hirugarren jardunaldia izango da asteburukoa. Partidu horretarako eta otsailaren 10ean Eibarrek Sevillan jokatu duen norgehigokarako sarrerak salgai

daude dagoeneko klubaren web-ean eta Ipuruako bulegoetan. Sevillak 200 sarrera bidali ditu Sanchez Pizjuanen jokatu den partidurako eta zaletuek otsailaren 8ra arte izango dute 25 eurotan erosteko aukera.

Mendebaldeko tribuna

Astelehenean klubak Ekialdeko tribunan hasiko dituen lanak aurkeztu zituen komunikabideen aurrean. Otsailean joko-zelaiari eus-

teko piboteak ezarriko dira eta, ondoren, tribuna hori bota eta grada berrirako oinarria egiten hasiko dira. Martxoan, bestalde, klubak denda ofiziala zabalduko du Ekialdeko tribunaren azpian eta, jarraian, museoa zabalduko dute. Lanak denbora baterako izango direnez, klubak liga hasierako partiduak Ipuruatik kanpo jokatzea eskatuko du Tribuna Nagusian egin beharreko hobekuntzei ere aukera emateko.



EUSKARAREN TRANSMISIOA IX. MINTEGIA



2019ko **martxoaren 12an**, asteartea

Eibar Eskubaloiko harrobiko taldeek torneo berriak hasiko dituzte asteburu honetan

Gipuzkoako 1. Mailan jokatzen duen Haritza izan zen garaile bakarra Eibar Eskubaloiko senior mailako taldeen artean, Aritzbatalderi Ipuruan 26-16 irabazita. Garaipen horrekin eibartarrek sailkapeneko bigarren postuari heltzen diote eta zein indartsu dauden erakutsi dute beste behin. Hasiararik, Ander Anabitartek aukera guztiak gauzatzen zituen bitartean, Jorge Martinezek ia jaurtiketa guztiak gelditzen zituen, eta horrek Haritzak markagailuan aldea jartzea ekarri zuen; horrez gain, Eibar Eskubaloiko bigarren taldeak joko polita ere erakutsi zuen. Lehen taldeak, Somos Eibar Eskuba-

loiak, ezin izan zuten ezustekorik eman Iruñean eta 36-27 galdu zuten Anaitasunaren liderraren aurka 1. Nazional Mailako partiduan. Hogei minututan eutsi zioten nafarren jokoari, baina atsedenaldirako 17-13 aurkakoa erakusten zuten markagailuak. Hala ere, Mikel Zuloaga eta Ander de Diego piboteek partidu handia egin zuten, Eneko Garetxanak moduan jokoa antolatzen. Emakumezkoen Eibar Eskubaloiak 19-28 galdu zuten Egia Kopidinekin taldeak dituen bak jak asko igarri ziren norgehiagokan; Amaia San Martin izan zen jokalaria aipagarriena Eibarrekoen lerroetan.



Somoseko jokalaria, Zaragozako Dominicosi Ipuruan irabazi eta gero.

Harrobiko taldeei dagokienez, kadete mailako Teknikerrek Euskadiko txapelketako play-offari ekin zion aurreko asteburuan, Indupime Basauriri 30-28 irabazita, emaitza motzegia kantxan ikusitakoaren ondoren, eibartarrek aukera asko galdu baitzuten aurkariaren atearen aurrean. Nesken

kadete mailako Komatek 7-25 irabazi zion Gasteizen Vital Fundazioari eta infantil mailako Bengoak gauza bera egin zuten Errenterian, 4-21 gailenduz; beste hiru partiduetan galtzaile izan ziren. Asteburu honetan beste torneo batzuk hasiko dira harrobiko taldeentzat, orain artekoekin amaituta.



Benjaminak pozik Legazpin

Eibar Igerixaneko benjamin mailakoek Ligaren bigarren jardunaldia jokatu zuten aurreko zapatuan Legazpiko igerilekuan. Hainbat igerilari gaisorik egon arren, gogotsu jardun zuten bertan parte hartu zutenek. Gazte horientzat bigarren aldia izan da txapelketen munduan eta badoaz gutxinaka dinamika hori eza gutzen. Biharko hitzordua bikoitza izango da Bergaran: Gipuzkoako XXXIV. Eskolarteko (alebinak) eta Neguko Txapelketak.

Errugbiko emakumezkoen taldea helburutik gero eta gertuago

Azken asteburuan Hernaniri 55-12 irabazita, emakumezkoen taldea mailaz igotzeko partidu bakarrera dago. Asteburu honetan ez dute partidurik, eta hurrengo asteburuan jokatuko dute azken jardunaldi hori. Gizonezkoen lehen taldeak partidu polita egin zuten Getxoren aurka Ohorezko B Mailako norgehiagokan, baina amore eman behar izan zuten bizkaitarren aurrean (28-45). Senior mailako bigarren taldeak erraz galdu zuten Elorrioren. Bihar, bestalde, Multikirolak barruko azken saioa izango da Unben (**behean**).



FELIX GANDIAGA ARTETXE

II. URTEURRENA (2017-I-29)

**“Bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko”**

ETXEKOEK



Deporreko mendizaleen Ezkaba Ihesa zeharkaldia sasoi betean sartu da

Aurreko zapatuan 21 mendizalek egin zuten Ezkabako Ihesaldia ibilaldiaren bigarren etapa, Nafarroako Olaben hasi eta Zubiri herriari amaitzeko. Zortea ere izan zuten egun horretan bildutakoek, halako aste euri-tsuaeren ondoren ateri izan zutelako "eta hainbatetan eguzkia ikusteko aukera ere bai; hori bai, bidea urez beteta zapaldu genuen, gainera elurra lagun askotan". Aurreko etapen bezalatsu, herririka txikiak (Usetxi, Lerranotz, Saigots) gurutzatu zituzten. Bidean, 1938ko ihesaren protagonista izan ziren iheslari haien oroitzapena: orain dela bizpahiru urte aurkitutako bi haien hezurdurak bezala. Ibilbidean Anue eta Esteribar haranak, hurrenez hurren, igaro zituzten eta, 20 kilometroren bueltan, Zubiri herri atseginera iristeko. "Gau Txori ta-



Elurra ere lagun izan zuten bigarren ibilaldian. Periko Iriondo

berna zain geneukan bazkari legea goxo-goxo egiteko. Ez zen bakarria Zubirin, 13 ostatu-aterpetxe zenbatu genituen-eta". Ez da alferrik bertatik pasatzen Done Jakueko bidea!

Datorren asteburuko zapatuan, otsailaren 9an, Ezkabako Ihesaldiaren hirugarren etapa egingo dute, Saigotsetik Aurizberrira, 20 kilometroko ibilbidearekin. Etapa horretan altuera handieneko ingurutik ibiliko dira,

ia bide guztian zehar 800 metrotik gora, "oso inguru politak ikusteko". Animatzen direnak La Salve (1.180 m) eta Tiratun (1.235 m) gailurretara igo daitezke: "Inolako zailtasunik gabekoak dira". Beti bezala, izena emateko edo informazio gehiago izateko, martitzen eta eguenetan Deporreko egoitzatik pasatu daitezke, 19:30etik 20:30era, edo telefonoz arratsaldez deituta (943 20 19 04).

Andoni Mayo 14. izan zen Euskadiko Txakurkros Ligaren bosgarren proban



Eibarko Takuai Mushing taldeak ordezkari bakarria izan zuen Zumaiaiko txakurkros proban. Andoni Mayok Zeus txakurrarekin hartu zuen parte lasterketan, txingorra eta lokatza "lagun" izan zuten proban. Lau kilometroko zirkuitoari bi itzuli emanaz osatu zuten ibilbidea, helmugan 24. postuan sailkatuz, euren mailako 14.ean. Hurrengo hitzordua Zierbenan izango dute, Euskadiko Txakurkros Ligako seigarren lasterketan.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Eibar - Girona (etzi, 18:30)

Emakumezkoen 2. Maila

Pradejon - Eibar (etzi, 16:30)

2. B Maila

Vitoria - Gimnastica (etzi, 12:30)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Añorga (bihar, 17:45)

Ohorezko Erregional Maila

Deusto Donostia - Eibar (bihar, 19:15)

1. Erregionala

Urki - Arizmendi (bihar, 18:00)

Ikasberri - Eibartarrak (etzi, 15:45)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Real Sociedad - Eibar (bihar, 13:00)

Euskal Liga

Astrabuduako - Eibar B (bihar, 17:00)

KADETEAK

Euskal Liga

Eibar - Lakua (bihar, 16:00)

FOBALL-ZALETUA

Garajes Garcia - Bar Txoko (bihar, 09:00)

Azkena Adahi - JMR (bihar, 10:30)

Larragest Sporting - Feredu (bihar, 12:00)

Durango - La Jara (etzi, 09:00)

Chic - Los Paisanos (etzi, 10:30)

Bar Areto - Ipur Sagardotegia (etzi, 12:00)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Egija Kopidin (bihar, 19:00)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Oskarbi - Eibar Eskubaloia (bihar, 19:15)

Gipuzkoako 1. Maila

Lau Bide Legazpi - Haritza (bihar, 17:30)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

El Salvador B - Avia Eibar (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 3. Maila

Astigarragako - Avia Eibar (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Leioa (gaur, 21:45)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - CD Bilbao (bihar, 15:35)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

*asteburuko emaitza guztiak
astelehen goizerako*

ISABEL LARREA GARITANO

I. URTEURRENA (2018-I-30)



*"Zu joan zara, baina zureganako
gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz
ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"*

ETXEKOAK



Eibarren sortutako rap musika estiloko lehen diskoa kaleratu berri du hirukoteak, *“beste askoren laguntzarekin”*. Norte Frío izenari leial orain dela hiru bat urtetik hona, taldeari izena ematen diona *“kontzeptu bat”* besterik ez zen hasieran, ez gehiago ez gutxiago: *“Pentsatzeko eta sentitzeko modua, sasoi hartan bizi genuenarekin lotua”*. Abestia izateko sortutako *“Norte Frío”* gaiak azkenean ez zuen argirik ikusiko, baina bai lagunduko ziela aurrera egiten eta gaur egun direna osatzen. *“Norte Frío Click Mixtape”* kalean dago.

Rap musikako lehen diskoa kaleratu dute Eibarren

2015aren bueltan bildu zen hirukotea *“kultura urbanorik ezagutzen ez zuen herrian”*. Horrela definitzen dute Eibar, *“horrelako girorik ez delako nabarmentzen gurean”*. Pit beteranoena da, Frantziatik etorritakoa gurera: *“Orain Zumarragara joan naiz bizitzera, baina Eibarren egiten dut lan”*. Break-dance egiten zuen laguna aurkitu eta rap-aren inguruko harremanak lotzen hasi zen Eibarren. *“Giro urbanoa maite dugun guztiok harremana dugu gure artean”*. B. Boy-k Ekuatoriar Ginean ditu sus-traiak, baina Eibarren bizi da egun. Bera da alaiena hiruren artean, beste bi taldekideren esanetan. Ibai Elkoro taldeko hirugarren kidea gure herrian jaiotakoa da



eta amaren esnearekin batera edoski du euskera. Hala ere, kaleratutako diskoko 22 abestien artean ez dago euskararik, frantsesez eta gazteleraz egindakoak direlako guztiak *“erdi eta erdi”*. Hala ere, Ibai ez du baztertzen hurrengo batean euskaraz egindako lanik sartzea; badabil letra batzuekin ahaleginak egiten ere. Kaleratutako diskoan bi dira, behintzat, euskarazko izena dutenak: *“Gudari”* eta *“Negua”* izenekoak.

“Hemen ere gero eta rap gehiago entzuten da”



Hiru urtetako lana

Grabatzen 2016an hasi ziren: *“Orduan ekin genion hirurok lehen abestiari, La Brule taldeko bi kolegek eskainitako laguntasunarekin”*. Talde horretakoek, beteranoagoak izanik, bazekiten zeozer egin beharreko ibilbideaz. Eskerronekoa da hirukotea: *“Askok lagundu digute urrats hau ematen, baina ezin dugu ahaztu Big Walter. Bera izan ez balitz! Soinu-ingeniarria da bera eta Legarrec Studio egiten duen lana ezin da ordaindu, beti besteoi laguntzeko prest eta lan ezin profesionalagoa eginez”*. Talde askorekin jardunda ere, Walter Tuzzeo italiarrarentzat berarentzat ere berritasuna izan da rap musika grabatzea, *“baina bikain moldatu da, ezin profesionalago, esku artean material aproposena erabiliz, eta nahasketa eta masterizazio lan fina eginez”*. *“Norte Frío”* kalezuloan distira egiten duen argia bihurtuz.



“Eibarren jotzeko gogoz gaude, diskoa aurkezteko”

Diskoko tema guztiak azken hiru urteko lanaren emaitza dira. Onartzen dute rap musika jarrera ezkorrekin lotzea, bizi dugun errealitatea salatzen joera baitu musika estilo horrek: *“Gure ikuspegia horrelakoa da, ezkorra; munduan badira-eta aldatu beharreko gauzak. Hori transmititu behar dugula uste dugu. Azken batean, gure bizipenak, gure sentimentuak, ikusi eta bizi duguna kontatzen dugu abestietan. Dena dela, hor gure bizipenak presente egoteak ez du esan nahi salatzen duguna ez dela aldi berean globala ere”*. Rap-a musika egokitzen jotzen dute salaketak egiteko, estilo horretan esaten denak garrantzi berezia duelako.

Rap-ean hitzak dira nagusi, ez ahotsa. *“Gu ere ez gara nabarmentzen gure aho-tsagatik”*. Horregatik, emandako urratsarekin oso pozik daude, *“aukera bakartzat”* ere jotzeraino. Rap-ean mugitzeak, dena dela, ez ditu mugatzen beste musika estiloetara jotzerakoan: *“Denetarik entzuten dugu, musika estilo askotatik edaten”*. Bai botatzen dutela faltan kultura urbanoa. *“Frantzian, esaterako, beste indar bat du aspalditik; bertan musika estilo jarraituena*



Ibai, B. Boy eta Pit. Desberdinak dira hirurak, ezin aproposagoak taldeari behar duen oreka emateko. Letrak ere hainbat hizkuntzatan lantzen dituzte; euskerarekin animatzea falta zaie.



izateraino, lehen postuan kokatuta”, dio Pit-ek. Inguruan, baina, nabaritu dute zeozer mugitzen badiharduela: *“Bada gazte jendea, gero eta gehiago... Ermuan, Deban, Durangon... hip-hop-ak gero eta jarraitzaile gehiago ditu”*. Pit-ek ahalegin pertsonala egiteko duen asmoa ere jakinarazi digu: *“Frantziatik neska-mutil batzuk ekartzeko ideia dut buruan, hemen eurak ezagutu eta jendea animatzeko itxaropenarekin”*.

Rap-a pasioa dugu

Kaleratutako lanak badu originaltasunetik ere, *“abestiak hiru hizkuntzatan eginak baitaude: frantsesez, gaztelez eta ingelesez -edo spanglish-”*, diote irribarreari eutsiz. Rap-a pasioa da eurentzat: gai bat egitera eramaten diena, gero bideo-klipea sortzera... Konturatu dira irudiak gero eta garrantzi handiagoa duela musika estilo horretan ere eta horrek behartzen ditu *“bideoak behar den moduan lantzea”*.

Horrek eramango ditu-eta euren jardunean gero eta hobeak izatera: *“Beti ikasten da zeozer”*.

Orain arte kontzertu solteak besterik ez dituzte eman, baina badute gogoia hasteko: *“Bakoitzak bere aldetik ibili gara zeozertan, kontzertu txikitxoetan, baina taldean ez dugu jo jendearen aurrean”*. Eibar, jakina, begiz jota dute: *“Badugu gure lana hemen aurkezteko gogoia, tokia eskaintzen digun nonbaiten. Ea lehenbailehen den!”*. Hemen, kultura urbanorik ez daukagun herrian? *“Bai, zergatik ez? Egia da ez dagoela eszena urbanorik, baina kalean gero eta rap gehiago entzuten da, baita autoetako musikan ere... Gauzak aldatzen doaz, ez pentsa!”*.

Rap-a terapia modukoa ere bada eurentzat: *“Horrela askatzen dugu barnean duguna, gustura. Beste baten aurrean esaten ausartzen ez zarena abesterakoan errazago ateratzen zaizu. Eta jendeari diozunarekin bat egitera ahalbidetzen dio”*. Abestiak egiterakoan bakoitzak bere aldetik jotzen du, hirurek idazten dute, gai berriekin saiitzen dira... Euren pasioa delako! *“Pasio ezin serioagoa!”*. Gero elkarrekin batu eta zeozer prestazio hasi aurretik. Estiloetan ere, askotarikoetara jotzen dute; instrumentoetan, gauza bera. Baina, beti ere, kontzeptu bati enfokatuta. Rap-ean nondik edaten duzue, batez ere? *“90. hamarkadako rap klasikoa ezin dugu baztertu, amerikarrak eta frantsesak nagusi izan zirenak; Frantziako hip-hop-a, esaterako, erreferentea izan da European”*.





MAITE DARCELES
(idazlea)

- Aurretik saiakera bat daukazu idatzita eta hauxe zure lehenengo eleberria da (Alberdaniak argitaratua). Zer dela eta aukeratu duzu fikzioa?

Gaur egungo gizarteari kritika egin nahi nion, eta zergatik ez fikzioari bidea irekitzea? Fikzioa eta gizarteari kritika, bi gauza horiek uztartzeko modua nola egin zitekeen ikusi nuenenean hasi zen ideia hau borobiltzen. Hori zen nire asmoa, muturrera eramanez oraingo zenbait joera, kontzientzia hartzea zer egingen ari garen, azaldu gure bizimoduan txertatuta dauden joera batzuk, larriak edo kezagarriak izan daitezkeenak.

- Etorkizunera bidaiatu duzu, XXI. mendeko bigarren erdialdera. Zer gertatzen da orduan?

“Fikzioaren bidea eraiki dut egungo gizarteari kritika egiteko”

Maite Darceles (Hondarribia, 1970) Eibarko Juan San Martin liburutegian egongo da datorren martitzenen, Harixa Emoten irakurketa taldearen aurrean “Bihotzean daramagun mundua” bere lehen eleberria aurkezten. XXI. mendeko bigarren erdialdean kokatu du Darcelesekin eleberria. Liburuan gizarte distopiko bat irudikatu du, zeinetan denak aurrez-finkaturiko gidoi bati jarraitzen dion, sentimenduak erosten diren esperientziengatik ordezkatzera. Panorama ilun horretan, esperantzarako izpi bat ikusten du idazleak, badirelako beste gizarte bat amesten dutenak.

Teknologia aurrera egiten ari da etengabe. Hemendik hamar urtetara gure eguneroko bizitzan imajinatzen ez ditugun gauzak egongo dira. Orain ez dauzkagun gauzak agertzen dira liburuan. Gizarte-mailan oso elementu inboluntarioak daude, atzera egin duten gauzak, eta hori da agerian jarri nahi dena, zeren gainean dagoen eraikita gizarte hori. Liburua aurrera egiten duzun heinean deskubritzen joaten zara benetan zer dagoen guzti horren atzean. Sistemak lortu du pertsonak guztiz otsanak, sumisoak izatea eta lortu du, adibidez, irakurketa guztiz batertzea garai horretan. Ez dago literaturarik, ez dago libururik... Lortu da jendeak ez galdetzea, ez kuestionatzea, eta ho-

rren ondorioz bizi dira azaleko bizimodu horretan.

- Lorea da protagonista nagusia, jakinmin handia eta ikerlari sena duen gaztea. Dena programatuta dagoen munduan bizi da, baina ia ohartu gabe, beste mundu bat badela aurkitzen du. Beraz, badago esperantza izpi bat gizarte horretan?

Hori transmititu nahi izan dut. Ez nuen liburu apokaliptiko bat egitea nahi. Esperantza duen pertsona bat naiz ni. Garrantzitsua da ulertzea esperantza izateko ekimen kolektiboak behar ditugula. Gizarteak eramaten gaitu askotan pentsatzera bakoitzak bere bidea hartu behar duela, bere kabuz bidea egin, baina horrela ez dugu lortuko gauza handirik aldatzea.

Hainbat talde irtengo dira santaeskean astelehenean

Astelehena Santa Ageda egunaren bezpera izango dela eta, ohiturari jarraituko diote herriko hainbat taldek aurtien ere eta kalerik kale koplak kantatzera irtengo dira, santaeskean. Lehenak **...eta kitto!** Euskara Elkartekoak izango dira: “Arratsaldeko 17:15ean elkartuko gara, **...eta kitto!**-n bertan (Urkizu 11, solairuartea) eta jarraian, 17:30ean abiatuko gara kalejiran. Urkizun hasi eta amaituko dugu eta bidean Bittor Sarasketa, Estaziño, Ibarburutze eta Arragueta zeharkatuko ditugu kantuan. Amaitzerakoan, 18:30 inguruan, txokolate beroa eta txorizoa har-



tuko ditugu **...eta kitto!**-n. Jende guztia gurekin batera santaeskean ibiltzera animatu nahi dugu”.

Kaleetan Kantuz abesbatzaren kalejira ere Urkizutik abiatuko da, 18:00etan. **Sostoa abesbatzako**en kalejira, berriz, 19:30-ean hasiko da, Ego Gain kalean dagoen Kontent taberna paretik. Hortik

abiatuta, kalerik kale ibiliko dira, santaeske koplak abesten, Urkizura ailegatu arte. Ibilbide osoan trikitilariak lagunduko diete. Eta **Eibarko Sarek** antolatutako duen kalejira Legarreko frontoian hasiko da eta taldea Untzaga, Calbeton, Zuloagatarren eta Toribio Etxebarria kaleetan ibiliko da santaeskean.



Pizza egin eta jan zuten masa tailerreko parte-hartzaileek

Benetan arrakastatsua izan zen eguaztenean ...eta kitto! Euskara Elkartean egindako masa italiar tailerraren lehen saioa. Parte hartzera animatu zirenek, besteak beste, masa nola egiten den ikasi zuten eta, gainera, azalpenak entzun ahala, ikasitakoa praktikan ipini zuten, tailerra ematera etorri ziren Ortutik Ahora elkartearen laguntzarekin. Saioa amaitu aurretik pizza bana egin eta bertan jan zuten eta denak pozarren geratu ziren lortutako emaitzarekin. Illunabarrian programaren barruan antolatutako tailerrak interes handia piztu duenez, talde bi osatu dituzte eta bigarren taldekoek datorren astean izango dute saioa.



Kaleetan Kantuzekoek Barakaldon abestu zuten zapatuan

Aurreko zapatuan Barakaldoko musika topaketan egon ziren Kaleetan Kantuz taldeko kideak. Topaketa Barakaldoko Clara Campoamor kultur etxean izan zen. Eibartik 50 lagun inguru joan ziren, eta Sestao eta Barakaldoko abesbatzek ere hartu zuten parte. Talde bakoitzak bost abesti eskaini zituen, eta amaieran hiru taldeek elkarrekin abestu zuten. Urtero hartzen dute parte Kaleetan Kantuzekoek Barakaldoko ekitaldi horretan eta eurak ere Eibarrera etortzen dira. Antolatzaileek esan digutenez, "oso gustora egiten dugun irteera izaten da, eta eurak ere oso gustora etortzen dira guregana".

Jabetze Eskolako ikastaroak

Astlehenean zabalduko dute Jabetze Eskolako ikastaroetarako izen-ematea. Sei ikastaro antolatu dituzte: "Conociendo tu movil" (Android sistemako telefonoak), "Caminemos juntas: taller de alpargatas", "Me pones... flamenca: taller de comunicación", "Ekin autodefensa feministari", "Viaje a mi casa interior: ¿Qué necesito para ser feliz?" eta "Gure buruaren jabe". Ikastaroei buruzko informazioa jasotzeko eta matrikula egiteko Andretxeara jo daiteke (943-700828 telefonora deituta edo andretxea@gmail.com helbidera idatzita), www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea helbidean sartu edo Pegorara joan. Matrikula epea martxoaren 7an itxiko dute.

Pagatxaren zine-foruma

Pagatxa emakumeen elkartearen eskutik, otsailaren 8an, 19:00etan, "No soy un hombre fácil" (Zuz: Eleonore Pourriat) pelikularen inguruko zine-forum saioa egingo da Portalean, Izaskun Rodríguez Elkorok gidatuta. Eta otsailaren 11n, berri, Patricia Perex Cotok zuzenduko duen "Emakumeen historiak" bideo-forum saioan Eurne Pasaban izango da protagonista. Saioa 18:30ean hasiko da, Portalean. Batean zein bestean sarrera librea izango da.



Poesia eta musika errezitala

Itzamna poesia-tailerreko kideek errezitaldi poetiko musikala egingo dute otsailaren 14an, 19:30ean, Portalean. Maite Lorenozok zuzentzen duen taldekoek Blas de Otero eta Angela Figueraren poemak errezitatuko dituzte, Alberto Luis Eguiaren pianoaren laguntzaz. Ekitaldiarekin poesiarekiko zaletasuna bultzatu nahi dute.

FELISA ZUBIAURRE ARRIZABALAGA

-Ramon Agirregomezkortaren alarguna-

7. urteurrena (2012-I-29)

**"Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"**

ETXEKOAK



Euskerazko Nanoipuin Lehiaketa antolatu dute

Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEK euskaltegiarekin lankidetzan, Nanoipuin lehiaketa antolatu du. Lehiaketan parte hartu nahi duenak pasadizo barregarriren bat, ezustekoren bat, amodio konturen bat... kontatu beharko du, beti ere gehienez 200 karaktere (bost lerro inguru) erabilita eta, jakina, euskeraz idatzita. Bestela, estiloa eta gaia libreak dira, baina ideia modura antolatzailerik proposatzen dituztenen artean oportetan gertatutako pasadizoren bat, tren-geltokian aspaldiko laguna ikustean sentitutakoa, ezustekoren bat, amodiozko konturen bat... daude. Nahi duenak har dezake parte lehiaketan. Lanak jatorrizkoak izan beharko dira eta PDF testu formatoan aurkeztea eskatzen dute. Posta elektronikoki bidez jasoko dituzte euskalte-



gia@eibar.eus, eibar@aek.eus edo euskara@eibar.eus helbideetan eta, horrez gain, Juan San Martin Liburutegian lagatzeko aukera ere badago. Lanak entregatzeko epea otsailaren 24an itxiko dute. Behin epea itxita, jasotako nanoipuinak www.eibarko-euskara.eus webgunean ipiniko dituzte irakurgai eta hortik aurrera botoa emateko aukera egongo da. Sari bi banatuko dituzte: epaimahaiaren saria (irabazleak Coliseoko emanaldi batetarako bi sarrera, Armagintza Museorako bi sarrera, eta Udalaren hainbat argitalpen jasoko ditu) eta jendearen botoen arabera erabakiko dena (Armagintza Museorako bi sarrera eta Udalaren hainbat argitalpen jasoko ditu irabazleak). Informazio guztia www.eibar.eus helbidean aurkituko duzue.

"Haurrak, poesia eta eskola" gurasoentzat tailerra antolatu dute otsailerako

Irakurtzeko zaletasuna sustatzen duen Bularretik Mintzora egitasmoaren barruan, familientzako eta hezitzaileentzako "Haurrak, poesia eta eskola" izenburuko formakuntza-tailerra egingo da Portalean, otsailaren 12an eta 19an (martitzena), 18:00etatik 20:00etara. Parte-hartzaileek haur poesia modurik eraginkorrenean probatuko dute, tailerra erabat praktikoa izango da eta. Irakaslea Yolanda Arrieta izango da eta, arduradunen berbetan, "iaz eskainitako tailerraren arrakasta kontuan hartuta, aurrean ere bera gidaria izatea pentsatu dugu". Izena emateko epea otsailaren 6an itxiko da eta interesatuak



943708437 telefono zenbakira deitu edo euskara@eibar.eus helbidera idatzi dezakete. Udal Liburutegiko mostradorean ere eman daiteke izena.

Batido energetiko eta naturalen tailerra

Otsailaren 20an, eguaztena, batido energetiko eta naturalen inguruko tailerra eskainiko du Jaione Yeregi nutrizionista eibartarrak ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu 11, solairuartera). Superelkagaietaz hitz egingo du Jaionek: zer diren, nola erabili eta zertarako balio duten azalduko du. Parte-hartzaileek batido eta smoothie batzuk egiteko eta horien inguruan hainbat gauza ikasteko aukera izango dute: oinarritzat erabiltzen diren elikagaiak, zertarako nahi dugun batidoa (energia emateko, elikadura orekatu bat lortzeko, elikadura detox bezala, zer elikagai erabili behar diren gorputzeko organu bakoitza garbitzeko...).




Tailerrerako izen-ematea otsailaren 4an, astelehenean, zabalduko da eta horretarako ...eta kitto! Euskara Elkarteko 943 20 09 18 telefonora deitu daiteke. Izen-emateak 3 euro balio du eta plazak mugatuak izango dira.



Oscar Garcia Gisasolaren akuarela-erakusketa

Gaur arratsaldean, 19:15ean inauguratuko dute Oscar Garcia Gisasolaren akuarela-erakusketa Untzagako jubilatuetxean. Ikusgai ipiniko dituen margolanetan Eibarko hainbat toki irudikatu ditu artistak. Erakusketa otsailaren 17ra arte egongo da zabalik, astelehenerik barixakura, 19:30etik 21:30era eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.



Kontzertua bihar ELGOIBARKO Gaztetxean

Elgoibarko Gazte Asanbladak eta Salento Elgoibarrek elkarlanean antolatuta, bihar kontzertua izango da gaztetxean, gaueko 21:00etatik aurrera. Ultimatum eta La Chirla Record (La Pollari tributoa) taldeek joko dute eta sarrera doan izango da.



“Balio magikoak” ikuskizuna bihar ELGETAKO Espaloian

Elgetako Espaloia kafe-antzokiak Oliver magoaren ikuskizuna hartuko du bihar, 16:30ean eta 18:00etan hasiko diren saioetan. Antzerkia, magia, musika eta umorea nahasten dituen saioa da. Sarrerak salgai daude 8 eurotan hainbat tokitan, tartean gure herriko Kultu tabernan. Egunean bertan 10 euroko prezioa izango dute leihatilan.



Hezeguneen Eguna DEBAN

“Debako paduretako orientazio martxa libre, zabor bilketa eta argazki rallya” antolatuta dute biharko, goizeko 11:00etan hasita, Debanaturakoek. Ekitaldia Hezeguneen Egunaren inguruan egingo dute.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

| Ostirala | Larunbata | Igandea | Astelehena | Asteartea |
|----------|-----------|---------|------------|-----------|
| | | | | |
| | | | | |

hildakoak

- Josefina Cid Abadia. 79 urte. 2019-I-22.
- Luis M^a Gisasola Iturricastillo. 73 urte. 2019-I-23.
- Trinidad Gonzalez Prieto. 71 urte. 2019-I-25.
- Esperanza Bastida Badiola. 103 urte. 2019-I-25.
- Miguel Maiztegi Aranzeta. 91 urte. 2019-I-26.
- M^a Paz Mitxelena Garate. 89 urte. 2019-I-26.
- Angeles Arrizabalaga Bilbao. 89 urte. 2019-I-29.
- Agustin Lizarralde Unzetabarrenetxea. 93 urte. 2019-I-29.
- Esther Gabilondo Aizpiri. 88 urte. 2019-I-30.

jaiotakoak

- Ander Berganzo San Martin. 2019-I-20.
- Martina Satmaraan Hernandez. 2019-I-21.
- Adrian Larrea Gallego. 2019-I-21.
- Iraia Bilbao Arrate. 2019-I-22.
- Malen Iriondo Garate. 2019-I-23.
- Pol Berrizbeitia Zenarruzabeitia. 2019-I-25.
- Jare Fernandez Rubio. 2019-I-26.

farmaziak

- Barixakua 1
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Zapatua 2
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Domeka 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
- Astelehena 4
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
- Martitzena 5
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Eguaztena 6
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 7
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 8
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

telefono

jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 9 | 4 | 5 | 6 | 2 | 3 | 8 | 1 |
| 5 | 3 | 8 | 9 | 1 | 4 | 6 | 7 | 2 |
| 2 | 6 | 1 | 7 | 8 | 3 | 9 | 4 | 5 |
| 1 | 5 | 7 | 4 | 9 | 6 | 2 | 3 | 8 |
| 9 | 4 | 2 | 3 | 7 | 8 | 1 | 5 | 6 |
| 3 | 8 | 6 | 1 | 2 | 5 | 7 | 9 | 4 |
| 4 | 2 | 5 | 6 | 3 | 9 | 8 | 1 | 7 |
| 8 | 1 | 9 | 2 | 5 | 7 | 4 | 6 | 3 |
| 6 | 7 | 3 | 8 | 4 | 1 | 5 | 2 | 9 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | | | 9 | | | | |
| | | 4 | 1 | | 7 | | 8 | |
| | | 9 | | 8 | | | | |
| 6 | | | | 7 | 3 | | | 1 |
| 1 | 2 | | | | | | 7 | 6 |
| 8 | | | 2 | 6 | | | | 5 |
| | | | | 9 | | 3 | | |
| | 5 | | 3 | | 8 | 7 | | |
| | | | 6 | | | | | 4 |

Barixakua 1

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze-ariketak. Portalean.

11:00. Jardiñetan. San Andres egoitzan.

INAUGURAZIOA

19:15. Oscar Garcia Gisasolaren Eibarko akuarelen erakusketa. Untzagako jubilatutxoaren.

Zapatua 2

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00/14:00. 42. Antzerki Jardunaldietako sarreraren aurresalmenta berezia. Coliseoan.

EH BIZI EGUNA

11:00. EH Bizi dinamikaren aurkezpena.

13:30. Hamaiketakoak.

15:00. Bazkaria ("makarronada").

16:30. Jolasak.

18:30. "Prekarietateari ateak itxi". Eibarko Gaztetxean.

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipuruako kiroldegian.

UMEENDAKO TAILERRA

18:00. Sormen tailerra. Doan (izen-ematea Liburu-dendan). El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

SANBLASEN BEDEINKAPENA

18:00. Urkiko San Josen.
19:00. Ipuruako San Pion.

MUSIKA

23:30. "We are apes hello" taldearen kontzertua. Ez Dok tabernan.

Domeka 3

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00/14:00. 42. Antzerki Jardunaldietako sarreraren aurresalmenta berezia. Coliseoan.

SANBLASEN BEDEINKAPENA

09:00, 10:00, 12:00 eta 19:00. Karmelitetan.
11:00. Azitaingo elizan.
11:00. Amañako elizan.
11:45. San Andres.
12:00. Ipuruako San Pion.
13:00. Urkiko San Josen.
13:00. Estaziñoko San Agustinen.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipuruako kiroldegian.

Astelehena 4

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00/14:00. 42. Antzerki Jardunaldietako sarreraren aurresalmenta berezia. Coliseoan.

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatutxoaren pentsiadun elkarretaratzea, pensio duinak eskatzeko. Untzagako.

SANTA AGEDA

17:30. Santa Ageda kalejira, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin (Urkizuko Estaziñoko-Urkizuko).

18:00. Kaleetan Kantuz abesbatzaren Santa Ageda kalejira. Urkizutik abiatuta.

19:30. Sostoaaren Santa Ageda kalejira. Ego Ginetik abiatuta

Martitzena 5

IKASTEN

10:00. "Bakardadea, gero eta arazo handiagoa?" hitzaldia, J.M. Mugikaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19:00. Idazlearekin Harixa Emoten literatur tertulia. Maite Darcelesen "Bihotzean daramagun mundua". Portalean.

Eguaztena 6

IKASTEN

09:12. Ibilaldia: Errekalde-Aginaga-Usurbil. Bazkaria sagardotegian. Trenaren irteera ordua, Ardantzatik (**09:14** Estaziñotik).
10:00. Luzatze ariketak. Biodantza ikastaroa. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 7

IKASTEN

10:00. "Memoria historica. Recordar para que no vuelva a suceder" hitzaldia, Paul Riosen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beterranoen entsegua 18:00etan hasiko da).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

2an: 19:45, 22:30 (2 Aretoa)

3an: 20:00

4an: 20:30

"Gente que viene y bah"

Zuzendaria: Patricia Font



(2 ARETOAN)

2an: 17:00, 19:45, 22:30

3an: 17:00, 20:00

4an: 20:30

"The Old Man & the Gun"

Zuzendaria: David Lowery



(ANTZOKIAN)

2an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

3an: 17:00⁽¹⁾ Aretoa, 20:00

4an: 20:30

"Bajo el mismo techo"

Zuzendaria: Juana Macías



(ANTZOKIAN)

2an: 17:00

3an: 17:00

"Uno más de la familia"

Zuzendaria: Charles Martin



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, JULEN, bixar 12 urte beteko dozuz-eta. Primeran ospatu, txapeldun! Patxo mordo bat zure famelixaren partez.



Zorionak, KATRIN, gaur 10 urte betetzen dozuz-eta. Zaku-bete laztan famelixa guztiaren partez. Aupa gure txapelduna!



Zorionak, UXUE!!, haraiñegun 4 urte bete zenuazen-eta. Millioi bat musu famelixaren eta, batez be, lbaitxoren partez.




Zorionak, ANDER, 11 urte!! Edarto ospatu zenuan eguna martitzenian, ezta? Patxo asko etxeko guztien partez.



Zorionak, EKAIN, hillaren 6xan 12 urte egingo dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, zure arreba Hiart-en partez.




Zorionak, OIHANA, martitzenian 5 urte egingo dozuzelako. Patxo potolo bat etxekuen partez. Jarraitu alai-alai!!



Zorionak, NAHIA!!!, eguaztenian urtetxua bete zenuan-eta. Patxo potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, FRANCESCO, bixar 4 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, MARTINA, aurreko domekan 4 urte bete zenuazen-eta. Etxeko printzesari, famelixaren partez.



Zorionak, NORA, otsaillaren 6xan urtia beteko dozu-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MALEN, gaur urtetxua beteko dozu-eta! Musu haundi bat aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, IZAR. Ondo pasa eguna! Musu potolo bat etxekuen eta, batez be, Olatzen partez.



Ongietorri, POL, eta zorionak, Mainer eta Jorge, famelixa guztiaren partez!! Oin disfrutatzia tokatzen da!! Patxo bana.




Zorionak, JUNE, datorren martitzenian 11 urte egingo dozuz-eta. Ondo ospatu eguna! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, OIER, aurreko domekan urtetxua bete zenuan-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partetik.



Eibarko ELENE Ari zaigu haunditzen, Otsaillaren 4ean Urteak betetzen, Aita-Ama ta Markel Zurekin ospatzen, Aurten 3 dituzu Ta segi betetzen!



Zorion-on-onak, LANDER, 10 urte bete dozuz-eta! Ondo ospatu eta musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, IGOR-en partez!



Zorionak, ALEX, 8 urte bete dozuz-eta. Patxo potolo asko etxekuen partez.



Zorionak NAIA NILI, zure 13. urtebetetzan! Asko maite zaittugu. Etxeko guztiok.



Zorionak, ARRATE!!!, lazтана. 12 urte hauek oparixa izan dira guretzat.

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Eibarren logela bat hartuko nuke alokairuan. Tel. 612-450354.
- Iruñeako 26 urteko mutilak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Zonaldean egiten du lan. Tel. 666-386563.
- Emakume batek pisua edo 2 logela hartuko litzuke alokairuan. Tel. 680-691739.
- Pisua behar dut alokairuan Eibarren. Tel. 632-695273.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldean jarduteko. Tel. 612-450354.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-312279.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-808708.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 691-214897.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 677-882490.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta errektoreak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-271530.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 604-101618.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 654-444945.
- Geriatria titulua duen mutila eskaintzen da lan egiteko. Tel. 631-627919.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia menpekotasunezko pertsonekin eta etxeko lanetan. Erreferentziak. Tel. 632-480376.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 688-640061.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 632-251861.
- Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 648-039187.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 732-874915.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 712-296098.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-483646.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-084256.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-145986.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-642350.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Esperientzia. Tel. 626-407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Esperientzia. Tel. 612-490124.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-489669.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-317670.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita etxez-etxe laguntzeko ere. Tel. 636-407923.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-906590.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-476921.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-574783.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-159373.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 686-212840.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 689-003537.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 633-205039.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-809926.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Jaurritaren ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 722-562241.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-524180.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 642-467834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (etxeak, soziedadek). Tel. 680-526228.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-388279.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 650-629319.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-729476.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-921780.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta pintore/igeltsero jarduteko. Tel. 612-358595.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-668877.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-410561.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 693-960639.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Formakuntza eta esperientzia. Tel. 631-975260.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Ordu-tegi malgua. Formakuntza eta esperientzia. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-463096.

- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 607-312258.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 650-152866.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-793715.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 690-139485.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-737903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-667975.
- Mutila eskaintzen da igeltsero jarduteko eta baserriko lanak egiteko. Tel. 644-849206.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-094780.

4.2. Langile bila

- Saltzailea behar da Eibarko denda batean. Bidali curriculum-a: EsEibar@hotmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Selektibitateko klase partikularrak ematen dira. 3/4 lagunekin talde txikiak. Tel. 685-739709.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Logela salgai. Ia berria. Ohe tolesgarria, bi mesilla eta sifonier ipiluarekin. Prezio oso onean: 300 euro. Tel. 632-271530.

6.2. Eman

- Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 667-942731.
- Katakumeak oparitzen dira. Tel. 628-502347.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila


5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak


6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Tratamendu-arlo guztietan
ISO 9001:2015 ziurtagiria lortu duen
EUSKADIKO LEHENENGO KLINIKA DA



DERMITEK
Uribitarte Pasealekua, 11-12
Isozaki Dorreak
48001 BILBO

DERMITEK KLINIKA: Barize lodiak kirurgiarik gabe ken daitezke, ebakuntza ostekorik gabe eta saio bakarrean

MINA, ASTUNTASUNA, AZKURA ETA ZAIN HANPATUAK DIRA, BESTEAK BESTE, BARIZE LODIAK DITUZTENEN SINTOMETAKO BATZUK. Bilboko Dermitek Klinikako Raquel Lambea doktoreak azalduko digu nola laguntzen dieten Dermiteken pertsona horiei barizerik gabe bizitzen. – **Zain barneko laserra barizeak kentzeko behin betiko metodoa al da?**

Galdera horri gure esperientziaren bene-tatu datuen bidez erantzungo diot: zain barneko laserraren birgaixotze-tasa % 0,6koa da tratamendua bukatu eta hurrengo urtean, hots, oso urrun dago ebakuntzaga-batean operatutako barizeen % 20ko birgaixotze-tasatik eta aparrez tratatutako barizeen % 40ko tasatik.

2010ean hasi ginen zain barneko laserra aplikatzen eta Dermitek klinikan dihardugunok ziurtzat jotzen dugu tratamendu horren eraginkortasuna; hortaz, edozein arazoi dela eta, lehenengo hamabi hilabeteetan birgaixotzerik gertatuz gero, tratamendua doan emango genuke berriro.

– **Zergatik aukeratu du teknika hori Dermitekek?**

Zain barneko laser mota asko dago. Eta horietako batzuk probatu ondoren, Dermiteken 1.320 eta 1.470 nanometroko laserrak aukeratu ditugu lan egiteko, horien emaitzak bikainak direlako eta tratamenduaren ondorengo garaia aparta delako. Zain barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzen dute nazioarteko mailan ezaugarri hauek dituelako:

- Birgaixotze-tasa txikia: lehenago esan dudan bezala, % 0,6koa, Dermiteken tratatu diren 1.500 kasuen artean egindako azterlan baten arabera. Kasuen eboluzioa zaindu ohi dugu lehen urtean, emaitza egiaztatu eta bermatzeko.
- Arrisku gutxiago: teknika ez erasokorra da, hots, kirurgia, ebaki, puntu eta ebakuntza ostekorik gabea.

Anestesia lokala bakarrik erabiltzen da eta saio berean bi zangoetako safena benak trata ditzakegu.

- Tratamendu ondoko deserosotasun gutxiago: pazienteak oinez aterako da klinikatik eta konpresio arineko galtzerdi bat eraman beharko du eta egunean bitan ibili bi astetan zehar, besterik ez.
- Eta berehala hasiko da ohiko bizimodua izaten: gure pazienteek garrantzi handia ematen diote horri.

gazkiak ikusi beharko ditugu, historia klinikoa eta gutxi gorabeherako aurrekontua egiteko.

Hurrengo kontsultan, azaleko zein sakoneko zain-sistemaren mapa egingo dugu, tratamenduaren egunean mediku-taldeari zehaztasun osoz gidatzeko.

Ordubetean eta saio bakarrean burutzen dugu tratamendua. Laserrak, oso zuntz mehe baten bidez, zain gaixoaren barrutik eragiten du eta hori erabat itxi eta



Zertan datza tratamendua?

Pazientea eta medikua elkartzen diren lehenengo aldian, informazioa ematen dugu doan, hots, diagnostikoa egiten dugu doppler ekografia bidez, arazoa non dagoen zehazteko eta tratamendua nolako izango den azaltzeko.

Lehenengo kontsulta hori telefonoz, Skype bidez edo gure web-orriko inprimakia betez ere egin daiteke, nahi izanez gero. Aldez aurretik pazientearen ar-

desagerrarazten du. Prozesu hori ekografia baten bidez kontrolatzen dugu eta anestesia lokala bakarrik erabiltzen dugu.

Bukatutakoan, pazienteak oinez aterako da klinikatik ordu-erdiz ibiltzera, zangoan konpresio-galtzerdi bat daramala. Ohiko jarduerari berehala ekin diezaioke berriro, lanari ere. Bi egun, bi hilabete eta 9-12 hilabete igaro ondoren ikusiko dugu paziente berritua klinikan, barizea berritua agertu ez dela ziurtatzeko.



EIBAR BHI
ISASI, 37

943 20 30 94
DBH 1 eta 2



EIBAR BHI
ARRATE BIDE, 24

943 70 22 89
DBH 3 eta 4



EIBAR BHI
JARDINETA, 3

943 20 83 49
DBH 3, 4 + Batxilergoak



AMAÑA

688 68 72 89



ARRATEKO ANDRA MARI

943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



SAN ANDRES

943 20 79 95



URKIZU

943 12 17 78

Aurrematrikulak

**HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN**

**Urtarrilaren 28tik
Otsailaren 8ra**

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

2019-2020 IKASTURTEA



Aurrematrikula / Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

ONLINE AURREMATRIKULA / www.hezkuntza.net

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO